

I. XEDAPEN OROKORRAK

ESTATUKO BURUZAGITZA

- 1529** *3/2021 Errege Lege Dekretua, otsailaren 2koa, Gizarte Segurantzaren eta ekonomiaren arloetan genero-arrakala txikitzeko eta beste gai batzuetarako neurriak onartzen dituena.*

I

SARS-CoV-2 birusak eragindako krisi sanitarioak bere horretan jarraitzen duenez, unean uneko neurriak hartzen jarraitu behar da, egoeraren arabera. Gainera, neurri horiek ahalik eta eperik laburrenean efikazak izateko aukera ematen duten tresnak erabili behar dira, egungo egoeraren berezko urgentzia dela eta. Egoera horren ezaugarria da gastu publikoak nabarmen egin duela gora, eta zenbait sektoretan jarduera ekonomikoa moteldu egin dela, osasungintzako agintariek pandemiari aurre egiteko ezarritako murrizketen ondorioz. Horregatik, nahitaezkoa da errege lege-dekretu honen xede diren neurriak hartzea. Neurriok helburu hirukoitza dute: Lehenik, Gizarte Segurantzaren sistemaren sendotasuna eta bideragarritasuna indartzea, eta, aldi berean, pentsioetan agertzen den genero-arrakalaren aurka jardutea. Horretarako, erreformatu egingo da Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bategineko 60. artikulua (urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsia). Bigarrenik, behar gehien duten kolektiboen aldeko babes-mekanismoak hobetzea. Hori lortzeko, alde batetik, Bizitzeko Gutxieneko Diru Sarrera ezartzen duen maiatzaren 29ko 20/2020 Errege Lege Dekretua aldatuko da, eta, bestetik, langile sanitarioen eta soziosanitarioen aldi baterako ezintasunaren araubidea hobetuko da. Eta hirugarrenik, familiek eta autonomoek behar beste baliabide dituztela bermatuko da, hipoteka-luzamenduen epea luzatuz eta Kreditu Ofizialeko Institutuaren bidez abal publikoak emanaz.

Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren 2019ko abenduaren 12ko epaiak (auzigaia: WA) ezarri zuen Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bategineko 60. artikulua, sistemako kotizaziopeko pentsioetako amatasun-osagarriari buruzkoa, Kontseiluaren 1978ko abenduaren 19ko 79/7/EEE Zuzentarauaren aurkakoa zela. Zuzentarau hori gizarte-segurantzaren gaien gizonen eta emakumeen arteko tratu berdinen printzipioa progresiboki ezartzeari buruzkoa da. Eta zuzentarauaren aurkakoa zela esan zuen, diskriminatzailetzat jo zuelako ekarpen demografikoagatik pentsio-osagarri bat jasotzeko eskubidea aitortzea emakumeei (gutxienez bi seme-alaba dituztenei); baina «... egoera berean dauden gizonak, aldiz, ez dute osagarri hori jasotzeko eskubiderik...».

Horrela, epaiak agerian utzi du ekarpen demografikoagatik konpentsazio osagarriaren lege-konfigurazio akastuna. Eta berriz definitu behar denez, pentsioetako genero-arrakala txikitzea bideratutako tresna efikaz bihurtzeko abagunea izan daiteke.

Ez da gehiegizkoa esatea genero-arrakala dela pentsioen esparruan Gizarte Segurantzaren babes-ekinbideak duen gabezia nagusia, emakumeek lan-merkatuan duten diskriminazio historiko eta egiturazkoaren isla baita, seme-alaben zaintzaileen rola bere gain hartu izan dutenez. Ildo horretan, egiaztatu da amatasunak modu erabakigarrian eragiten diola emakumearen lan-ibilbideari jardunean dagoen garaian, eta hori da arrakala egoteko arrazoirik garrantzitsuenetako bat, garrantzitsuena ez bada: zenbat eta seme-alaba gehiago izan, orduan eta urte gutxiago kotizatzen dira, orduan eta txikiagoa da lanaldi osoko kontratuen edo baliokideen proportzioa, eta, azken batean, txikiagoa da aitortutako pentsioa.

Egoera hori ez da Espainian bakarrik gertatzen, Europar Batasuneko gainerako herrialdeetan ere berdin gertatzen da, ia salbuespenik gabe. Hori dela eta, ez da harriztekoa Konstituzio Auzitegiak berak helburu honen zilegitasuna aitortu izana: «... seme-alabak zaintzen aritzeagatik, eta ahalik eta lan-karrera luzeena izateko asmoa izan arren, gainerako langileek adina urtez kotizatu ezin izan duten amak konpentsatzea»

(KAA, 114/2018). Eta Auzitegiak berak emakumeen aldeko ekintza positiboko neurriak babestu ditu, betiere alde zuzenetik araudia zehaztuta bada, neurria egoeraren arabera bada eta eragin-aldia mugatua bada, hain zuzen, desberdinkeria-egoera desagertu arte (KAA, 119/2018). Parametro horiek erregulazio honetan biltzen dira, eta lotura argia dute Espainiako Konstituzioaren 9.2 artikuluan eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarriko martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoaren 11. artikuluan jasotako benetako berdintasuna lortzeko aginduarekin, eta ekintza positiboaren doktrinarekin. Gainera, lotura du oraintsu berritutako Toledoko Itunaren gomendioekin ere.

Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren testu bategineko 60. artikuluen erregulazio berriak, eta apirilaren 30eko 670/1987 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Estatuko Klase Pasiboen Legearen testu bateginean (hemezortzigarren xedapen gehigarria) duen kontraerantzunak, ekarpen demografikoagatiko amatasun-osagarriaren orde, genero-arrakala txikitzea bideratutako osagarria ezartzen dute. Osagarri horretan, seme-alaben kopurua erabiltzen da irizpide objektibotzat neurria artikulatzeko, seme-alaben jaiotza eta zaintza baita genero-arrakala gertatzeko arrazoi nagusia.

Eta modu orekatu eta eraginkorrean aplikatzen du —eta, aldi berean, Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren jurisprudentzia errespetatuz—, «osagarria» genero-arrakala txikitzeko palanka gisa taxutzea helburu duen diseinu baten bidez; izan ere, emakumeek lan-merkatuan duten mendekotasun-egoeraren isla da genero-arrakala, historikoki emakumeak hartu baititu bere gain seme-alaben zaintza-lanak. Hala ere, atea irekita uzten zaie zaintza-lan horiek beren gain hartzeagatik seme-alaba bat jaiotzean edo adoptatzean kotizazio-karreran kalteren bat izan dutela egiaztatzen duten aitei, «osagarria» eskuratzeko aukera izan dezaten. Hau da, emakumeen aldeko ekintza positibo bat da (gurasoetako batek ere ez badu egiaztatzen bere kotizazio-karreran kaltea izan duela, «osagarria» emakumeak jasotzen du), eta aldi berean, atea irekita uzten du antzeko egoeran egon daitezkeen gizonentzat.

Laburbilduz, ondoriozta daiteke Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren testu bategineko 60. artikuluen erregulazio berriaren bidez, Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak gizarte-politikaren helburu legitimotzat jotzen duena lortu nahi dela: pentsioen esparruan proiektatzen den egiturazko bidegabekeria-egoera bat zuzentzea (emakumeek seme-alabak zaintzeko lanak beren gain hartzea), berdintasun-politiken gabezia historikoa eta zaintzaile-lanen esleipena agerian jarri. Gaur egun pentsioa eskuratzen duten emakumeek beren karrera profesionalean pairatu duten kaltea konpondu nahi da, hau da, iraganean sortutako kaltea. Eta, beraz, guztiz bateragarria da eta guztiz bat dator gaur egun lan-merkatuan dauden desberdinkeriak eta zaintzarekin lotutako rol-esleipena zuzentzeko berdintasun-politika anbiziotsuak garatzearekin.

Planteamendu horrekin bat etorri, osagarri ekonomiko berriaren denbora-irismena kotizaziopeko erretiro-pentsioetan genero-arrakala ehuneko 5etik behera txikitzeko helburua lortzearekin loturik dago.

Berrikuspen-sistema bat ere ezarri da, zeinean gizarte-eragileek zeresana izango duten; horrela eginez, genero-desberdinkeria-aurkako borrokan guztien konpromisoa bermatzen da, hain zuzen, behar handieneko uneetan agerian geratzen den konpromisoa. Horretarako, Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren testu bategina eta Estatuko Klase Pasiboen Legearen testu bategina aldatu egin behar dira.

Neurri horiek guztiak hartzeko, finantzaketa-sistema ezarri behar da, eta amatasun-osagarria jasotzen ari diren pentsiodunentzako osagarri berriak izango duen irismena zehaztu.

Azkenik, aipatu behar da Gobernuak osagarria berriz konfiguratzeko eztabaidatu duela gizarte-eragileekin izandako elkarrizketa sozialaren esparruan, eta horien ekarpenek tresna horren diseinuan eta arauetan hobekuntza garrantzitsuak txertatzeko balio izan dutela, eta erreformaren zilegitasun soziala indartu egin dela.

Bizitzeko Gutxieneko Diru Sarrera ezartzen duen maiatzaren 29ko 20/2020 Errege Lege Dekretuak arautzen du prestazio hori. Prestazioa indarrean jarri, eta ondorengo abiaraztealdian agerian geratu da haren alderdi batzuk hobetu egin behar direla, ahalik eta pertsona gehien beharrei erantzun ahal izateko eta egungo araudiarekin kontuan hartzen ez diren edo prestazioan behar bezala txertatzeko jardunbiderik ez duten egoera batzuk sartu ahal izateko.

Egoera ahulenean daudenen babesa helburu atzeraezina da, are gehiago krisi sanitarioaren eraginez krisialdi ekonomikoan gauden honetan. Ezinbestekoa da Estatuak berehalako erantzuna ematea premia larriko egoera bati. Erantzun hori, kasu honetan, Gizarte Segurantzaren sistemaren dauden mekanismoen bidez egituratzen da, eta, zehazki, bizitzeko gutxieneko diru-sarreraren kotizazio gabeko prestazioen bidez. Horregatik aldatu behar da maiatzaren 29ko 20/2020 Errege Lege Dekretua.

Helburu horrekin, aldatu egiten da bizitegi-zerbitzuen erabiltzaileen araudia, funts pribatuarekin finantzatutako establezimenduetan bizi diren pertsonak ere prestazioaren onuradun izan daitezkeen; aurretiko testuaren arabera, establezimendu publikoetan bizi zirenak bakarrik izan zitezkeen prestazioaren onuradun. Izan ere, gizarte-bazterketako egoeran dauden pertsona batzuk prestaziotik kanpo geratzen ziren baliabide horiek erabiltzen zituztelako.

Halaber, etxebizitza berean bizi diren bizitzeko gutxieneko diru-sarreraren titularren muga kentzen da, bizitegi-zerbitzuen erabiltzaileek hura eskuratzeko izan dituzten oztopoak ezabatzeko, bai eta gastuak partekatzeko soilik etxebizitza berean elkartzen diren eta kalteberatasun-egoeran dauden pertsonen errealitatea aintzatesteke ere.

Bestalde, garrantzitsutzat jo da erroldatze-kasu berezi jakin batzuk kontuan hartzea, Estatistikako Institutu Nazionalaren Presidentetzaren eta Autonomia Erkidegoetako eta Tokiko Lankidetzarako Zuzendaritza Nagusiaren 2020ko otsailaren 17ko Ebazpenean jasotakoak. Ebazpen horren bidez, udal-erroldaren kudeaketari buruzko jarraibide teknikoak ematen zaizkie udalei. Zehazki, establezimendu kolektiboetan eta infraetxeetan egiten diren erroldatze-kasuak eta etxerik gabeko pertsonen erroldatze-kasuak dira kontuan hartzen direnak. Erroldatze mota horiek errealitate bat uzten dute agerian: etxe kolektiboetan bizitzearen eta etxegabetasunaren edo infraetxeetan bizitzearen errealitatea. Horiei guztiei aparteko tratamendua eman behar zaie, maiatzaren 29ko 20/2020 Errege Lege Dekretuaren 19. artikuluan ezarritako erroldatze-araubide orokorrean jasotzen dena ez bezalakoa.

Kasu horietan, aukera dago bizikidetzaren unitatea osatu dezaten titularrak, ezkontza bidez elkartutako pertsonak, izatezko bikoteek eta, hala badagokio, lehenengo mailarainoko odol- edo ezkontza-ahaidetasuna duten haien ondorengo adingabeek, edo adopzio-lotura dutenek edo adopzio-helburuko zaintza edo familia-harrera iraunkorrerako araubidea dela-eta elkarrekin bizi direnek. Kasu batzuetan, odol-ahaidetasuna bigarren mailakoa ere izan daiteke.

Bestalde, prestazioaren onuradun izan daitezkeenengan eragina duen beste fenomeno bat da bizikidetzaren unitatearen berezko loturak dituzten pertsonekin etxebizitza berean bizitzeko aukera, baina bizikidetzaren hori egoera berezi baten ondorio izatea, hala nola: genero-indarkeriaren biktimia izatea; banantzeko, ezkontza deuseztatzeko edo dibortziatzeko izapideak hasita izatea edo formalki eratutako izatezko bikotea desegiteko eskatu izana eta adopziorako edo familia-harrera iraunkorrerako zaintza-araubidean dauden adingabeak ardurapean izatea, edo etxetik alde egin izana utzarazpenagatik; edo etxean bizi ezin izatea istripuagatik edo ezinbesteko arrazoiengatik. Genero-indarkeriaren biktimia diren emakumeak izan ezik, bizikidetzaren unitate independentearen izaera aldi baterako izango da.

Halaber, prestazioa jasotzeko aukera ematen zaie bakarrik dauden pertsonari, baldin eta bakarrik dauden beste pertsona batzuekin edo bizikidetzaren unitateekin bizi badira eta euren artean ahaidetasun-loturarik ez badute.

Bestalde, prestazioaren onuradun izan daitezkeen pertsonen errealitatea konplexua denez, gizarte-zerbitzuek parte hartu behar dute, bai eta, aldi baterako, behar bezala egiaztatutako gizarte-ekintzako hirugarren sektoreko erakundeek ere —bizitzeko

gutxieneko diru-sarreraren gizarte-bitartekariak—, egoera berezi jakin batzuk daudela egiaztatu ahal izateko.

Bizitzeko gutxieneko diru-sarreraren gizarte-bitartekarien figura lankidetzeta-mekanismo indartua da prestazioaren izapidetzean, hain zuzen ere beharrezkoa dena arau hau indarrean jarri eta lehenengo bost urteetan prestazioaren erakunde kudeatzaileak arinago eta errazago egiaztatu ditzan prestazioa eskuratzeko eskatzen diren betekizun jakin batzuk.

Horretarako, arautu egiten dira erakunde bat bizitzeko gutxieneko diru-sarreraren gizarte-bitartekarizat hartua izateko bete behar dituen funtsezko betekizunak. Bizitzeko gutxieneko diru-sarreraren gizarte-bitartekaria izateko, Bizitzeko Gutxieneko Diru Sarreraren Gizarte Bitartekarien Erregistroan inskribatu beharko da; maiatzaren 29ko 20/2020 Errege Lege Dekretuan txertatzen den zortzigarren xedapen iragankorraren bidez sortzen da erregistro hori. Gizarteratzeko eta Gizarte Aurreikuspeneko Helburu eta Politiken Idazkaritza Nagusiaren titularraren ebazpen bidez inskribatuko da, horretarako eskatzen diren betekizun guztiak egiaztatu ondoren. Erregistroan inskribatu ahal izateko bete ziren baldintzak betetzen direla egiaztatu beharko da urtero.

Horrela, prestazioa eskuratu ahal izateko, gizarte-zerbitzuen ziurtagiria eskatuko da, honako hauek egiaztatuzko: bizitegi kolektiboa, bizitegi-zerbitzuaren aldi baterakotasuna, erroldan agertzen den lekuan ez bizitzea alegatzen duen pertsonaren benetako helbidea, edo etxebizitza berean prestazioaren eskatzaileez gain beste pertsona batzuk bizi badira euren artean loturarik ez dagoela. Txostenak urtero eguneratu behar dira.

Aldaketa horrekin batera, honako hau ere gehitu da: ebazpena helbiderik gabeko pertsoneri jakinarazteko, interesdunak erroldatuta dauden udalerriko gizarte-zerbitzuak edo erakundearen egoitza edo zentroa erabiliko dira; era berean, udalek eta Gizarte Ekintzako Hirugarren Sektoroko erakundeek beren egoitzetan erroldatuta dauden etxerik gabeko pertsonen egoitza-aldaketak Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalari jakinarazteko betebeharra sartuko da.

III

Arau honetan Gizarte Segurantzako beste neurri batzuk jasotzen dira, hain zuzen ere, berehala aplikatu behar direlako ohiko bidetik izapidetu ezin direnak.

Neurri horien artean dago Enpleguaren aldeko gizarte-neurriak indartzen eta finkatzen dituen urtarrilaren 26ko 2/2021 Errege Lege Dekretuaren 5. artikulua 9. apartatuko bigarren lerokada aldatzea, kotizatze betebeharra uztea prestazioaren eskaera aurkezten den hilabetearekin lotzeko, bai eta testu horren 7. artikulua ere, zergak zenbatespen objektiboaren bidez ordaintzen dituzten langile autonomoek diru-sarrerak jaitsi izana errazago frogatzea. Horretarako, presuntzio bat ezarri da, prestazioa eskuratzeko, zenbait kasutan jardueraren murrizketa frogatzeko beharra kendu baita.

Bestalde, bizi dugun pandemiaren ondorioz asistentzia sanitarioa bermatu behar denez, ezinbestekoa da erraztasunak ematea administrazio publikoei bizitza aktibotik erretiratuta dauden osasungintzako profesionalak kontratatzeke. Urriaren 25eko 926/2020 Errege Dekretuak, SARS-CoV-2 birusak eragindako infekzioen hedapena geldiarazteko alarma-egoera deklaratzeko duenak, ezartzen du alarma-egoera indarrean dagoen bitartean, osasun publikoan eskumena duten osasungintzako administrazioek, arau honetan aurreikusten ez den orotan, COVID-19ak eragindako osasun publikoko larrialdi-egoerari aurre egiteko beharrezko diren neurriak hartzen jarraitu beharko dutela, osasungintzako legeriaren arabera. Bereziki, lege hauek hartu beharko dira kontuan: 3/1986 Lege Organikoa, apirilaren 14koa, Osasun Publikoaren arloko Neurri Bereziak; 14/1986 Lege Orokorra, apirilaren 25koa, Osasunarena; 33/2011 Lege Orokorra, urriaren 4koa, Osasun Publikoarena; eta dagokion araudi autonomikoa.

Azaroaren 3ko 956/2020 Errege Dekretuak 2021eko maiatzaren 9ko 00:00ak arte luzatzen du urriaren 25eko 926/2020 Errege Dekretuak adierazitako alarma-egoera.

Urriaren 25eko 926/2020 Errege Dekretuaren 2. artikulua adierazten duenez, alarma-egoeraren ondoretarako, agintaritzak eskuduna nazioko gobernua izango da, eta, autonomia-erkidego eta autonomia-estatutudun hiri bakoitzean, agintaritzak eskuordetu

eskumenduna izango da autonomia-erkidegoko edo autonomia-estatutudun hiriko presidentea, errege-dekretu horretan ezarritako baldintzetan. Era berean, urriaren 25eko 926/2020 Errege Dekretuaren 12. artikulua ezartzen du administrazio bakoitzak indarrean dagoen legeriak ematen dizkion eskumenei eutsiko diela, bai eta bere zerbitzuen eta langileen kudeaketari ere, beharrezkotzat jotzen dituen neurriak hartzeko, errege-dekretu honetan ezarritakoa alde batera utzi gabe.

Neurri horien artean, erretiratutako osasungintzako profesionalak autonomia-erkidegoetako eta autonomia-estatutudun hirietako osasun-zerbitzuetan beren borondatez sartzeko aukera legoke.

Azkenik, osasun-zentroetan edo zentro soziosanitarioetan zerbitzuak ematen dituzten eta pandemia-egoeran beren lanbidean COVID-19a hartu duten profesionalak babesteko lanetan aurrera egitea adostu da. Horretarako, profesional horiez gain, Osasun Zerbitzu Publikoetako eta Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalako ikuskaritza medikoan zerbitzuak ematen dituzten osasungintzako langileak eta Itsasoko Gizarte Institutuan zerbitzuak ematen dituzten Itsas Osasuneko osasungintzako langileak ere babesteko dira.

Urrutiko Lanaren irailaren 22ko 28/2020 Errege Lege Dekretuaren laugarren xedapen gehigarriaren bidez, langile horiek eragindako prestazioak lan-istripuen ondorioz sortutakotzat hartuko zirela ezarri zen.

Errege lege-dekretu honen arabera, langile horiek sor ditzaketen prestazioak Gizarte Segurantzaren sistemak lanbide-gaixotasuna hartu dutenei ematen dizkien berberak izango dira. Horrela, salbuespen-egoera bati ezohiko erantzuna eman nahi zaio, eta,aldi berean, aukera ematen du osasungintzako eta arlo soziosanitarioko profesionalen hainbat korporazio eta elkartek ildo horretan egindako eskaerei eta parlamentuko taldeek gobernuari egindako eskaerari erantzuteko.

IV

Pandemiari eusteko beharrezko diren neurrien ondorioz sortutako likideziaren eta kaudimenaren arteko gurgil zoroa haustearren, zenbait errege lege-dekretu onartu ziren, maileguak (hipoteka-maileguak zein hipotekazkoak ez direnak) ordaintzeko luzamenduak ezartzeko, familiei eta autonomoei zuzenduak, eta, ondoren, krisialdiaren ondorioak bereziki pairatu zituzten sektore ekonomiko jakin batzuei zuzenduak.

Europako Banku Agintaritzak (EBA) pandemia globalak Europa osoan sortutako nahasmenduen berri eman zuen, eta COVID-19aren krisialdiaren ondorioz aplikatutako maileguen itzulketen legegintzako luzamenduei eta legegintzakoak ez diren luzamenduei buruzko gidalerroak onartu zituen 2020ko apirilaren 2an (EBA/GL/2020/02). Gidalerro horiei esker, kreditu-erakundeek COVID-19aren ondorioak arintzeko emandako luzamenduen kontabilitate-tratamendu onuragarria jaso dute, zeinak ondorio haiek finantza-erakundeetan izan duten eragina arindu baitu, COVID-19aren krisialdiak kaltetutakoak babesteko interes publikoa eta finantza-egonkortasunari eustea uztartuta.

Europako Banku Agintaritzaren gidalerroek mugak ezartzen zizkieten emakida-eperei, hain zuzen, luzatzen joan diren epeei. Hasiara batean, 2020ko ekainaren 30era arteko epea ezarri zen; hala ere, pandemiak European dituen ondorio ekonomikoek bere horretan dirautenez, 2020ko irailaren 30era arte luzatu zen, agintaritza honek ekainaren 25ean onartutako aldaketaren bidez (EBA/GL/2020/08), eta epe hori gure ordenamendu juridikora egokitu zuen uztailaren 7ko 26/2020 Errege Lege Dekretuak (COVID-19ak izan duen eraginari aurre egite aldera garraio- eta etxebizitza-arloko ekonomia suspertzeko neurriena).

Pandemiak maila globalean eta, bereziki, European izan duen bilakaeraren ondorioz, Europako Banku Agintaritzak gidalerro horiek aldatu ditu berriro (EBA/GL/2020/15), luzamenduak eskatzeko epea berriz ere luzatzeko. Errege lege-dekretu honek luzapen horretara egokitu nahi du gure ordenamendu juridikoa.

Pandemiaren ondorioen hedapenarekin koherentzia gordez, komenigarria da martxoaren 31ko 11/2020 Errege Lege Dekretuaren 16. artikulua xedatutakoarekin bat kalteberak diren pertsonen finantzaketa-kuoten ordainketan luzamenduak eskatu eta lortu ahal izateko duten epea luzatzea, eta hori egiteko modua eta baldintzak honako hauetan

ezarritakoak izango dira: COVID-19aren eragin ekonomiko eta sozialari aurre egiteko presako eta ezohiko neurrien martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretua, hipoteka-bermedun zorretarako, eta martxoaren 31ko 11/2020 Errege Lege Dekretua, hipoteka-bermerik gabeko kredituetarako. Martxoaren 31ko 11/2020 Errege Lege Dekretuak Gizarte-eta ekonomia-arloan presako neurri osagarriak ezartzen ditu COVID-19ari aurre egiteko. Gainera, bai legezko luzamenduaren, bai sektoreko akordio bati atxikitako luzamenduaren edozein onuradunek bederatzi hilabeteko gehieneko iraupen metatua duen luzamendua baliatu ahalko du, hasiera batean epe laburragorako luzamendua eskatu dutenek barne.

Ilido horretan, 7. artikulua 2021eko martxoaren 30era arte, egun hori barne, luzatzen du aipatu errege lege-dekretuetan ezarritako hipoteka-finantzaketa eta hipotekaz kanpoko finantzaketa ordaintzeko luzamenduak eskatzeko epea, Europar Batasunaren esparruan aurreikusitakoarekin bat, hau da, COVID-19aren krisialdiaren ondorioz aplikatutako maileguren itzulketen legegintzako luzamenduei eta legegintzakoak ez diren luzamenduei buruzko Europako Banku Agintaritzaren gidalerroen 10 (f) zenbakian ezarritakoa betez.

Turismo-sektorearentzako eta bidaiariaren errepideko garraioaren sektorearentzako luzamenduak eskatzeko epeari dagokionez, automatikoki luzatu da, gidalerro horietan ezarritakoa aplikatuz, Ekonomiaren suspertzea eta enplegua bultzatzeko premiazko neurrien uztailaren 3ko 25/2020 Errege Lege Dekretuaren 5.2 artikuluan ezarritakoaren arabera (sektore turistikorako) eta COVID-19ak izan duen eraginari aurre egite aldera garraio- eta etxebizitza-arloko ekonomia suspertzeko neurrien uztailaren 7ko 26/2020 Errege Lege Dekretuak 20.2 artikuluan ezarritako prozeduraren arabera (bidaiariaren errepideko garraioaren sektorerako).

Horrez gain, 7. artikulua horrek aukera ematen die onuradunei edozein luzamendu eskatzeko; gehienez ere bederatzi hilabetez luzatu ahal izango dira, EBAREN gidalerroetan ezarritakoaren arabera. Horrela, edozein luzamendu aplikatzeko eskatu ahal izango dute, gehienez ere bederatzi hilabeterako, aurretik luzamendua edo etendura eskatu ez dutenek eta luzamendu bat edo batzuk bederatzi hilabete baino gutxiagoko guztizko epe metatuan zehar baliatu dituztenek.

Bestalde, 8. artikulua horien gehieneko iraupen metatua ezartzen du, Europar Batasunaren eremuan aurreikusitakoarekin bat datorrena. Errege lege-dekretu hau aplikatuko zaie bera indarrean jarri aurretik emandako luzamenduei. Sektoreko akordioetan oinarrituta emandako luzamenduek, hasiera batean, aukera ematen zuten legezko luzamenduetan aurreikusitako hiru hilabetetik gorako ondoreak eta iraupena izateko. Orain ezartzen denez, legezko luzamenduaren iraupen metatua eta mailegu-hartzaileak baliatzen duen sektoreko hitzarmenari atxikitakoarena ez dira bederatzi hilabetetik gorakoak izango.

Gehieneko iraupen-epe hori luzamendu guztiei aplikatuko zaie, bai legezko, bai maiatzaren 26ko 19/2020 Errege Lege Dekretuak (COVID-19aren ondorioak arintzeko neurri osagarriak hartzen dituen nekazaritzaren, zientziaren, ekonomiaren, enplegu eta Gizarte Segurantzaren eta zergen arloetan) araututako sektoreko esparru-akordio bati atxikitakoei. Beraz, muga horren eraginpean geratzen dira, halaber, uztailaren 3ko 25/2020 Errege Lege Dekretuaren 3. artikuluan ezarritako luzamenduak (turismo-sektoreari aplikatu dakizkiokeenak) eta uztailaren 7ko 26/2020 Errege Lege Dekretuaren 18. artikuluan ezarritako luzamenduak (garraioaren sektoreari aplikatu dakizkiokeenak).

Europako Banku Agintaritzaren gidalerroek zehazten dutenez, iraupenaren muga atzeraeraginez aplikatuko zaie 2020ko irailaren 30era arte emandako luzamenduei, data hori baita Europako Banku Agintaritzaren gidalerro berriak atzeraeraginez aplikatzeko azken eguna. Horrela, 2020ko irailaren 30aren ondoren emandako luzamenduek bederatzi hilabeteko iraupena izan dezakete gehienez. Hala ere, errege lege-dekretu honetan ezartzen denez, 2020ko irailaren 30a baino lehen emandako luzamenduek bederatzi hilabetetik gorako iraupena izaten jarraitu ahalko dute, eta, bestetik, irailaren 30etik errege lege-dekretua indarrean jarri arte emandakoek bere garaian zituzten baldintzei eta iraupenari eutsiko diete.

Pandemiaren iraupenari eta haren ondorioei buruzko ziurgabetasuna dela eta, gomendagarria da neurriari malgutasuna ematea, eta, beraz, epe hori data horretatik aurrera luzatzeko aukera gehitu da. Gauza bera gertatzen da luzamenduen guztizko

iraupen-epearekin, prozedura beraren bidez luzatu ahal izango baita; betiere, aplikatu behar zaion Europako finantza-esparruarekin bat etorritz.

V

Enpresa eta autonomoek kreditua eta likidezia lortzeko finantza-erakundeek emandako finantzaketari abal publikoak emateak bete egiten du Europar Batasunak ezarritako araudia, batez ere COVID-19aren egungo agerraldiaren testuinguruan ekonomia babestera bideratutako estatu-laguntzako neurriei buruzko aldi baterako esparrua eta Batzordearen 2013ko abenduaren 18ko 1407/2013 (EB) Erregelamendua, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107 eta 108. artikulua *minimis* laguntzei aplikatzeari buruzkoa.

Europako araudiaren arabera, dirulaguntza ematen duten agintaritzek nahitaez argitaratu beharko dute emandako laguntzari buruzko informazio jakin bat. Izan ere, laguntzak jakinarazteko betebeharrak ez betetzeak laguntzak lege kanpo uztea ekar dezake. Zalantzarik gabe, Kreditu Ofizialeko Institutuak kudeatutako abal-lerroak dira garrantzitsuenak horien bolumena kontuan hartuz gero, eta Estatuak, abal-emailea den heinean, emandako dirulaguntzei buruzko informazioa helarazi behar du Estatu Administrazioako Kontu-hartzaitza Nagusiak kudeatzen duen Dirulaguntzen Datu Base Nazionalaren bidez. Betebeharrak bete ahal izateko, beharrezkoa da Espainiako Bankuaren kreditu-kalifikazioen informazioa edukitzea, hain zuzen, enpresa bakoitzari dagokiona. Horretarako, errege lege-dekretu honen bidez, Kreditu Ofizialeko Institutuak informazio hori eskuratzeko duen eskubidea ezartzen da, informazioa eskatzen duenean. Gainera, Kreditu Ofizialeko Institutuak bi betebeharrak izango ditu lortutako informazioari dagokionez: informazioa modu konfidentzian tratatu beharko du eta estatu-laguntzei buruzko Europako araudian ezarritako betebeharrak betetzeko soilik erabili beharko du.

VI

Errege lege-dekretuak honako hauek barne hartzen ditu: bederatzi artikulua, hiru kapitulu eta bi titulutan banatuta; lau xedapen gehigarri; xedapen iragankor bat; xedapen indargabetzaile bat eta hiru azken xedapen.

I. titulua Gizarte Segurantzaren arloko neurriei buruzkoa da, eta honako hauek barne hartzen ditu:

I. kapitulua, genero-arrakala txikitzeko osagarriari buruzkoa.

1. artikulua bidez, aldatu egiten da Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu batekina, eta irismen hau izango du:

60. artikulua aldatzen da, lortu nahi den eta eragile sozialek adostu duten helburura egokitzeko. Helburu nagusia da Gizarte Segurantzaren sistemako prestazio bat eskuratzeko unean nabarmenago agertzen den genero-arrakalari heltzea.

Hogeita hamaseigarren xedapen gehigarria txertatu da testuan, 60. artikuluan jasotako osagarria finantzatzeko, baita hogeita hamazazpigarren xedapen gehigarria ere, osagarri horren denbora-irismenari buruzkoa.

Hogeita hamahirugarren xedapen iragankor berri bat gehitu da, Gizarte Segurantzaren sistemako kotizaziopeko pentsioetan amatasun-osagarriari aldi baterako eustea arautzeko.

Bigarren artikulua bidez, Estatu Klase Pasiboen Legearen testu batekina aldatzen da. Aldaketa horrek hemezortzigarren xedapen gehigarriari eragiten dio, eta haren helburua da Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu batekineko 60. artikuluan aurreikusitako genero-arrakala txikitzeko osagarri ekonomikoa Estatu Klase Pasiboen Erregimenean pentsio bat jasotzen dutenei ere emango zaiela xedatzea; eta hamalagarren xedapen iragankorra gehitzen da, Klase Pasiboen pentsioetan amatasun-osagarriari aldi baterako eustea arautzeko.

II. kapituluaren bizitzeko gutxieneko diru-sarrerari buruzko neurriak jasotzen dira. Bereziki, 3. artikulua bidez, Bizitzeko Gutxieneko Diru Sarrera ezartzen duen maiatzaren 29ko 20/2020 Errege Lege Dekretua aldatzen da. Eredu subjektiboaren arauketan zenbait aldaketa egin dira, eta honako hauei eragiten diete: 4. artikulua, prestazioaren onuradunak zehazteko; 5. artikulua, bizitegi bereko titularren muga kentzeko; 6., 6 bis, 6 ter eta 6 quater artikuluei, bizikidetzaren unitateen ezaugarriak aldatzeko. Eta aurreko aldaketekin bat etorriz, aldatu egiten da eskubidea eteteko arazoiei buruzko aurreikuspena (14. artikulua), betekizunak egiaztatzeari buruzkoa (19. artikulua), 19 bis artikulua gehitzen da gizarte-zerbitzuen betebeharrak ezartzeko. Prozeduran ere aldaketak egin dira (25. artikulua); 30. eta 31. artikulua aldatu dira, jarraipen-batzordean eta aholku-kontseiluan interesdun eta inplikaturako guztiek parte hartuko dutela bermatzeko; helbide-aldaketak jakinarazteari buruzko araudi berri bat ezarri da, eta xedapen iragankor bat erantsi da testuan, gizarte-ekintzako hirugarren sektoreko erakundeen lankidetzaren arautzeko. Erakunde horien partaidetza aldi baterako izango da.

III. kapituluak Gizarte Segurantzaren sistemaren esparruan garatzen diren zenbait xedapen jasotzen ditu.

Laugarren artikulua bidez, urtarrilaren 26ko 2/2021 Errege Lege Dekretua, Enpleguaren aldeko gizarte-neurriak indartzen eta finkatzen dituena, aldatzen da hiru helbururekin: batetik, kotizatzearen betebeharraren etendura jardura eteteagatik prestazioaren eskaera aurkeztu den hilabeteari lotzea, hura administrazio eskudunen ebazpen bidez xedatzen denean; bestetik, 7. artikulua aldatzen da, zenbatespen objektiboaren bidez zergak ordaintzen dituzten langile autonomoek diru-sarreraren beherakada errazago frogatu dezaten, eta horretarako presuntzio bat ezartzen da. Horrek prestazioa eskuratzea erraztuko luke, kasu jakin batzuetan jardura murriztu dela frogatzeko beharra kenduko lukeelako. Azkenik, bigarren xedapen iragankorra berrikusten da, koherentzia emateko eta egoera berdinetan tratatu desberdina ematea saihesteko. Hala, akats baten ondorioz, xedapen horretan ezarri zen agintari eskudunek SARS-CoV-2 birusaren hedapenari eusteko hartutako neurriak kendu eta hurrengo hilaren azken egunean amaituko zela prestazioa, edo 2021eko maiatzaren 31n, azken data hori lehenagokoa bada; baina egia esan, prestazio hori neurriak kentzea erabakitzen den hilaren azken egunera arte sortu behar da, edo 2021eko maiatzaren 31ra arte, azken data hori lehenagokoa bada. Horixe ezartzen zuen irailaren 29ko 30/2020 Errege Lege Dekretuak (Enpleguaren Aldeko Gizarte Neurriena) 13.1 artikuluan, eta, gaur egun, gauza bera ezartzen du urtarrilaren 26ko 2/2021 Errege Lege Dekretuak (Enpleguaren aldeko gizarte-neurriak indartzen eta finkatzen dituena) 5.8 artikuluan. Ez dago justifikaziorik jardura etetearekin lotutako ezohiko prestazio bat ordaintzen jarraitzeko, prestazioa ematea eragiten duten baldintzak desagertzen direnean.

Bestalde, 5. artikulua aurreikusten du erretiro-pentsioa bateragarria dela osasungintzako lanbideetako estatutupeko langile izendatzearekin. Izendapen hori SARS-CoV-2 birusak eragindako infekzioen hedapena geldiarazteko alarma-egoera deklaratu duen urriaren 25eko 926/2020 Errege Dekretuaren babesean egina da.

Azkenik, 6. artikuluan, osasungintzako zerbitzuak edo zerbitzu soziosanitarioak ematen dituzten eta pandemia-egoeran beren lanbidean COVID-19a hartu duten profesionalak babesteko lanetan aurrera egitea adostu da.

II. tituluak ekonomiaren arloko neurriak jasotzen ditu.

Zazpigarren artikulua bidez, 2021eko martxoaren 30era arte luzatu da, egun hori barne, hipoteka-finantza eta hipotekaz kanpoko finantza ordaintzeko luzamenduak eskatzeko epea, Europar Batasunean aurreikusitakoarekin bat. Horrez gain, ezartzen du edozein luzamendu aplikatzeko eskatu ahal izango dutela, gehienez ere bederatzi hilabetekoa, bai aldeztu aurretik luzamendua edo etendura eskatu ez dutenek, bai bederatzi hilabete baino gutxiagoko guztizko epe metatuko luzamendu bat edo gehiago edo etendura eduki dutenek.

Zortzigarren artikulua ezartzen du luzamenduen iraupen-epea bat etorriko dela Europar Batasunaren esparruan aurreikusitakoarekin, eta, beraz, legezko luzamenduen

edo 2020ko irailaren 30etik aurrera emandako sektore-akordioei atxikitako luzamenduen iraupen metatua ezingo dela izan bederatziz hilabetetik gorakoa.

Bederatzigarren artikulua eskubidea ematen dio Kreditu Ofizialeko Institutuari Espainiako Bankuak moneta-politika ezartzeko eginkizunetan enpresa bakoitzari emandako kreditu-kalifikazioaren banakako informazioa eskuratzeko. Orobat, ezartzen du kreditu-kalifikazioen banakako informazioa konfidentzialtasunez tratatu behar duela eta estatu-laguntzei buruzko Europako araudian ezarritako betebeharrak betetzeko baino ez, hain zuzen, abal publikoak emateko edo kudeatzeko.

Xedapen gehigarriari dagokienez, Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bategineko 60. artikulua eta Estatuko Klase Pasiboen Legearen testu bategineko (apirilaren 30eko 670/1987 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartua) hemezortzigarren xedapen gehigarria aldatu eta berehala indarrean jarriko direnez, genero-arrakala txikitzeko osagarri ekonomikoaren zenbatekoa ezartzen duen xedapen bat gehitu behar da. Helburu hori lehenengo xedapen gehigarriaren bidez lortuko da.

Bigarren xedapen gehigarriak jarduera eteteagatiko prestazioa modalitate bat baino gehiagotan jaso duten langile autonomo jakin batzuen fakturazio-murrizketa egiaztatu egin behar dela ezartzen du.

Hirugarren xedapen gehigarriaren bidez, lanbide-gertakariengatiko babesaren barruan sartzen ditu Osasun Zerbitzu Publikoetako eta Gizarte Segurantzako Institutu Nazionaleko ikuskaritza medikoan zerbitzuak ematen dituzten osasungintzako profesionalak eta Itsasoko Gizarte Institutuan zerbitzuak ematen dituzten Itsas Osasuneko osasungintzako profesionalak ere, baldin eta SARS-CoV-2ak eragindako gaixotasuna hartu badute.

Laugarren xedapen gehigarriak hipoteka-finantzaketa eta hipotekaz kanpoko finantzaketa ordaintzeko luzamenduak eskatzeko epea 2020ko martxoaren 31tik aurrera luzatzeko aukera jasotzen du, Europako Banku Agintaritzaren gidalerroen aldaketaren bidez hala ezartzen denean. Gauza bera gertatzen da luzamenduen guztizko iraupen-eparekin; epe hori ere luzatu ahal izango da.

Xedapen iragankor bakarrik eutsi egiten dio 2020ko irailaren 30etik errege lege-dekretu hau indarrean jartzen den arte emandako maileguren luzamenduen iraupenari, 8. artikuluan ezarritako bederatziz hilabeteko gehieneko epea gainditu arren.

Gainera, testuak xedapen indargabetzaile bakarra jasotzen du. Xedapen indargabetzaile horren bidez, onartu egiten da errege lege-dekretu honetan xedatutakoaren aurkakoak diren maila bereko edo beheagoko xedapen guztiak indargabetzea.

Azkenik, eskumen-tituluari, araugintza-gaikuntzari eta indarrean jartzeari buruzko hiru azken xedapen jasotzen dira.

VII

Nazioartean pandemia eta gure herrialdean beste alarma-egoera berri bat deklaratu ondoren bizi dugun egoera ikusita, agerian geratzen da neurri sozialak hartzeko eta herritarren finantza-karga arintzeko ezohiko premia larria justifikatzen duten arrazoiak egon badaudela.

Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bategineko 60. artikulua aldatzeari dagokionez, ezohiko premia larrirako oinarria dago, funtsezko bi arrazoiengatik: lehenengo arrazoa genero-arrakala txikitzeko aurrerapenek porrot egiteko duten arriskua da. Argi dago amatasun-osagarriaren hasierako formulazioak, Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak egindako interpretazioan, arriskuan jartzen duela gizonen eta emakumeen arteko erabateko berdintasuna lortzea gizarte-babesaren esparruan; beraz, lege-erantzun bat eman behar da berehala, zeinak ahalbidetuko baitu araua bideratzea pentsio publikoak eskuratzeko agerian geratzen diren desberdinkeriak murriztera eta, hala badagokio, kentzera. Eta, bigarrenik, araua segurtasun juridikoko arrazoiengatik onartzen da; izan ere, araua birbideratu beharra dago, emakumearen onurarako ekintza positiboko neurri gisa sortutako tresna batek bere jatorrizko helbururik gabe iraun dezan, horrek desagerrarazi behar den ziurgabetasun logiko bat baitakar (Konstituzio Auzitegiaren 11/2002 epaia). Ildo horretan kokatzen da bizitzeko gutxieneko diru-sarreraren prestazioaren aldaketa. Aldaketa horren bidez, aplikazio-denboran agerian jarritako premietara egokitu nahi da araua, eta

gizarte-egoera ahulean dauden pertsonen sektorearen babesa bermatzen du, haien kalteberatasun-egoera larriagotu egin baita pandemiaren ondorioz; atzeratzeak ez luke zentzurik izango. Era berean, premiazkotzat jotzen da krisi sanitario eta ekonomikoak ukitutako langileak babestea. Ondorioz, diru-sarreraren beherakada edo prestazio-babes egokia egiaztatzeko neurriak hartu beharko dira, langileek hartzen dituzten arriskuen arabera. Egungo egoeran, gainera, premiazkoa eta beharrezkoa da finantza-arloko neurriak hartzea, herritarrengan, bereziki, gizarte-egoera ahulean dauden kolektiboengan eta eragile ekonomikoengan izango dituen ondorioei aurre egiteko. Pandemiaren ondorio sozial eta ekonomikoak gaur egun hedatuta daudenez, premiaz doitu behar ditugu hasieran aurreikusitako kalteberatasun-egoeran dauden pertsona fisikoentzat diseinatutako neurri batzuk eta, bereziki, COVID-19aren eragin ekonomiko eta sozialari aurre egiteko presako eta ezohiko neurrien martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuan aurreikusitako hipoteka-zorraren eta hipotekaz kanpoko zorraren luzamenduak eta martxoaren 31ko 11/2020 Errege Lege Dekretuan (COVID-19ari aurre egiteko gizarte- eta ekonomia-arloan presako neurri osagarriak ezartzen dituen) ezarritako luzamenduak.

Beraz, errege lege-dekretu hau onartzeko ezohiko premia larria gobernari dagozkion judizio politikoaren edo egokitasun-judizioaren mende dago (Konstituzio Auzitegiaren ekainaren 7ko 61/2018 epaia, 4. oinarri juridikoa; irailaren 11ko 142/2014 epaia, 3. oinarri juridikoa); eta erabaki horrek, zalantzarik gabe, jarduteko lehentasun politikoak antolatutako beharra dakar (Konstituzio Auzitegiaren 2019ko urtarrilaren 30eko epaia, 2208-2019 konstituzio-kontrakotasuneko errekurtoa). Azaldu berri diren egokitasun-arrazoiek erakusten dute errege lege-dekretu hau onartzeak ez duela esan nahi inolaz ere konstituzio-tresna hori abusuz edo modu arbitrarioan erabili denik (Konstituzio Auzitegiaren ekainaren 7ko 61/2018 epaia, 4. oinarri juridikoa; maiatzaren 8ko 100/2012 epaia, 8. oinarri juridikoa; abenduaren 13ko 237/2012 epaia, 4. oinarri juridikoa; otsailaren 14ko 39/2013 epaia, 5. oinarri juridikoa). Aitzitik, azaldutako arrazoi guztiek erruz eta arrazoiz justifikatzen dute arau hau ezartzea (Konstituzio Auzitegiaren maiatzaren 31ko 29/1982 epaia, 3. oinarri juridikoa; abenduaren 2ko 111/1983 epaia, 5. oinarri juridikoa; urriaren 20ko 182/1997 epaia, 3. oinarri juridikoa).

Errege lege-dekretu hau bat dator Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak eskatzen dituen printzipioekin: premia, efikazia, proportzionaltasuna, segurtasun juridikoa, gardentasuna eta efizientzia. Horren ondoretarako, honako honek premia- eta efikazia-printzipioak betetzen ditu; izan ere, ezartzen diren neurrien oinarrian interes orokorra dago, eta errege lege-dekretua da hori lortzeko tresnarik azkarrena. Errege lege-dekretua bat dator proportzionaltasun-printzipioarekin, aurrez aipatutako helburuak lortzeko behar-beharrezkoak diren arauak baizik ez baititu ezartzen. Halaber, segurtasun juridikoaren printzipioa betetzen du, bat baitator gainerako ordenamendu juridikoarekin. Gardentasun-printzipioari dagokionez, araua kontsulta publiko, entzunaldi eta jendaurreko informazioaren izapidetatik salbuetsita badago ere (lege-dekretuak izapidetzeko eta onartzeko ez direlako aplikatzen), printzipio horretara ere egokitzen da, argi eta garbi identifikatzen baititu arauaren helburuak eta hura justifikatzen duten arrazoiak. Azkenik, efizientzia-printzipioa dago; errege lege-dekretu honetan ahaleginak egin dira arauak herritarrei ahalik eta administrazio-zama txikienak eragiteko.

Errege lege-dekretu hau Espainiako Konstituzioaren 149.1 artikulua 1., 6., 8., 11., 13., 14., 17. eta 18. puntuetan xedatutakoaren babesean eman da; arau horiek eskumen eskusiboa ematen diote Estatuari alor hauetan: merkataritza-legeria; legeria zibila, alde batera utzi gabe autonomia-erkidegoek zuzenbide zibilak, foralak edo bereziak (halakorik dagoen lekuetan), irauarazi, aldatu eta garatzea; kreditua eta bankuak antolatzeako oinarriak, eta jarduera ekonomikoaren plangintza orokorraren oinarriak eta koordinazioa; espainiar guztien berdintasuna bermatzen duten oinarriko baldintzak arautzeko eskumena, eskubideak baliatzean eta konstituzio-eginbeharrak betetzean; jarduera ekonomikoaren plangintza orokorraren oinarriak eta koordinazioa; ogasun orokorra eta Estatuaren zorra; Gizarte Segurantzaren oinarriko legeria eta araubide ekonomikoa; eta

administrazio publikoen araubide juridikoaren eta administrazio-prozedura erkidearen oinarriak.

Horrenbestez, Espainiako Konstituzioaren 86. artikuluan emandako baimenaz baliatuta, Inklusio, Gizarte Segurantzako eta Migrazioetako ministroak eta Ekonomia Gaietako eta Transformazio Digitaleko ministroak proposatuta, eta Ministro Kontseiluak 2021eko otsailaren 2ko bileran eztabaidatu ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT:

I. TITULUA

Gizarte Segurantzaren arloko neurriak

I. KAPITULUA

Genero-arrakala txikitzeko neurriak

1. artikulua. *Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren testu bategina aldatzea; testu bategin hori urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartu zen.*

Aldatu egiten da Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren testu bategina — urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartua—, eta honela geratzen da idatzita:

Bat. Aldatu egiten da 60. artikulua, eta honela geratzen da idatzita:

«60. artikulua. *Genero-arrakala txikitzeko kotizaziopeko pentsioen osagarria.*

1. Seme-alaba bat edo gehiago izan dituzten eta kotizaziopeko erretiro-pentsio, ezintasun iraunkorreko pentsio edo alarguntasun-pentsio baten onuradun diren emakumeek osagarri bat jasotzeko eskubidea izango dute seme-alaba bakoitzeko, emakumeen Gizarte Segurantzako kotizaziopeko pentsioen zenbatekoan genero-arrakalak oro har duen eraginagatik. Emakumeari seme-alaba bakoitzeko osagarria jasotzeko eskubidea aitortuko zaio edo eskubideari eutsiko dio, baldin eta beste gurasoak osagarria eskatu eta hari aitortzen ez bazaio; eta beste gurasoa ere emakumea bada, pentsio publiko txikiagoak jasotzen dituenari aitortuko zaio.

Gizonek osagarria jasotzeko eskubidea izan dezaten, baldintza hauetakoren bat bete beharko dute:

a) Beste gurasoaren heriotzagatik, elkarrekin dituzten seme-alabengatik alarguntza-pentsioa jasotzea, baldin eta horietako batek zurtasun-pentsioa jasotzeko eskubidea badu.

b) Erretiroko edo ezintasun iraunkorreko kotizaziopeko pentsio bat jasotzea, eta seme-alaben jaiotzagatik edo adopzioagatik karrera profesionala eten izana edo kaltetua izana, baldintza hauen arabera:

1.a 1994ko abenduaren 31ra arte jaiotako edo adoptatutako seme-alabak badira, ehun eta hogeigun baino gehiago kotizatu gabe izatea jaiotzaren aurreko bederati hilabeteen eta data horren ondorengo hiru urteen artean, edo, adoptatutako seme-alabak badira, adopzioa eratzen duen ebazpen judizialaren dataren eta hurrengo hiru urteen artean, baldin eta aitortutako pentsioen zenbatekoen batura emakumeari dagozkion pentsioen batura baino txikiagoa bada.

2.a 1995eko urtarrilaren 1etik aurrera jaiotako edo adoptatutako seme-alabak badira, jaiotzaren edo adopzioa eratzen duen ebazpen judizialaren ondorengo hogeita lau hilabeteetako kotizazio-oinarrien batura aurreko hogeita lau hilabeteetako baino ehuneko 15 txikiagoa izatea, baldin eta aitortutako pentsioen zenbatekoen batura emakumeari dagozkion pentsioen batura baino txikiagoa bada.

3.a Bi gurasoak gizonezkoak badira eta biek aurreko baldintzak betetzen badituzte, zenbateko txikieneko pentsio publikoak jasotzen dituenari aitortuko zaio.

4.a Osagarria jasotzeko eskubidea sortzeko, aitortutako pentsioen batura beste gurasoari dagokion pentsioen batura baino txikiagoa izatea eskatuko da bi gurasoek kotizaziopeko prestazioa jasotzeko eskubidea sortzen duten unean, arauan aurreikusitako moduan.

2. Bigarren gurasoari osagarria aitortuz gero, lehen gurasoari aitortutako osagarria iraungi egingo da, eta ondore ekonomikoak izango ditu ebazpena eman eta hurrengo hilaren lehen egunetik aurrera, betiere ebazpena eskaera egin eta hurrengo sei hilabeteen barruan ematen bada, edo, hala badagokio, hura eragin duen pentsioa aitortu eta hurrengo sei hilabeteen barruan; epe hori igarotakoan, zazpigarren hilaren lehen egunetik aurrera izango ditu ondoreak.

Bigarren gurasoari eskubidea aitortzen dion ebazpena eman aurretik, osagarria jasotzen ari denari entzungo zaio.

3. Osagarri horrek kotizaziopeko pentsio publikoaren izaera juridikoa izango du ondore guztietarako.

Seme-alabengatik osagarriaren zenbatekoa Estatuko Aurrekontu Orokorren Legean finkatuko da. Jaso beharreko zenbatekoa seme edo alaba bakoitzeko finkatutako hileko zenbatekoa halako lau izango da gehienez, eta urte bakoitzaren hasieran igoko da, dagokion Estatuaren Aurrekontu Orokorren Legean kotizaziopeko pentsioetarako aurreikusitako ehuneko berean.

Osagarria jasotzeko, arau hauek ere bete beharko dira:

a) Seme-alaba bakoitzak osagarri bat soilik jasotzeko eskubidea emango du.

Osagarria jasotzeko eskubidea eta horren zenbatekoa zehazteko, pentsioa eragin duen gertaeraren aurretik bizirik jaiotako edo adoptatutako seme-alabak bakarrik hartuko dira kontuan.

b) Aitari edo amari ez zaio aitortuko osagarria jasotzeko eskubidea, baldin eta guraso-ahalari atxikitzen zaizkion eginbeharrak ez betetzeagatik guraso-ahala kendu bazaio epai baten bidez, edo auzi kriminalean edo ezkontzako auzian emandako epaiaren bidez.

Osagarria jasotzeko eskubidea ez zaio aitortuko, ezta ere, emakumearen aurkako indarkeriaren ondorioz kondenatua izan den aitari, legeak edo Espainiak berretsitako nazioarteko tresnen bidez zehaztutako moduan, indarkeria hori amaren aurka gauzatu bada, ezta seme-alaben aurka indarkeria erabiltzeagatik kondenatua izan den aitari edo amari ere.

c) Osagarria hamalau ordainsaritan ordainduko da, osagarri hori jasotzeko eskubideak zehazten duen pentsioarekin batera.

d) Osagarriaren zenbatekoa ez da kontuan hartuko 57. eta 58.7 artikuluetan aurreikusitako pentsioen gehieneko muga aplikatzean.

e) Osagarri honen zenbatekoa ez da laneko diru-sarreratzat edo etekintzat hartuko 59. artikuluan aurreikusitako gutxienezko osagarria jasotzeko eskubidea izateko baldintzak betetzen diren ala ez zehazterakoan. Baldintza horiek betetzen direnean, pentsioaren gutxieneko zenbatekoa aitortuko da, Estatuko Aurrekontu Orokorren Legeak urtero ezartzen duenaren arabera. Zenbateko horri genero-arrakala txikitzeo osagarria gehituko zaio.

f) Osagarria jasotzeko eskubidea zehazten duen kotizaziopeko pentsioa aseguru-aldiak *pro rata temporis* delakoaren bidez guztizkora eramanez sortzen bada, nazioarteko araudia beteta, osagarriaren benetako zenbatekoa lortzeko, aurreko apartatuan aipatutako zenbatekoari —zenbateko teorikotzat hartuko baita— dagokion pentsioari aplikatutako hainbanaketa aplikatuko zaio.

4. Ez da osagarri hori jasotzeko eskubiderik izango 215. artikuluan eta laugarren xedapen iragankorraren seigarren apartatuan aipatutako erretiro partziala hartuz gero.

Dena den, bidezkoa den pentsio-osagarria aitortuko da erretiro partzialetik erretiro osoa eskuratzen denean, behin kasu bakoitzari dagokion adina beteta.

5. Bigarren apartatuan xedatutakoa alde batera utzi gabe, onuradunak 1. apartatuko pentsioetako bat jasotzen duen bitartean ordainduko da osagarria. Ondorioz, osagarriaren sorrera, etendura eta azkentzea bat etorriko dira hura aitortzea eragin duen pentsioarenarekin. Hala ere, pentsio hori eten edo azkentzeko unean onuradunak 1. apartatuan adierazitakoen artetik beste pentsioen bat jasotzeko eskubidea badu, osagarriaren ordainketa mantendu egingo da, eta azken horri lotuta geratuko da.

6. Gizarte Segurantzako edozein araubidetan aitor daitezkeen osagarriak bateraezinak izango dira elkarren artean, eta pentsioaren eragileak alta-aldi gehien dituen araubidean ordainduko dira».

Bi. Hogeita hamaseigarren xedapen gehigarria gehitzen da, honela idatzita:

«Hogeita hamaseigarren xedapen gehigarria. *Genero-arrakala txikitzeko kotizaziopeko pentsioen osagarriaren finantzaketa.*

60. artikuluan jasota dagoen genero-arrakala txikitzera bideratutako kotizaziopeko pentsioen osagarria finantzatzeko, Estatuak transferentzia bat egingo du Gizarte Segurantzaren aurrekontura».

Hiru. Hogeita hamazazpigarren xedapen gehigarria gehitzen da, honela idatzita:

«Hogeita hamazazpigarren xedapen gehigarria. *Genero-arrakala txikitzeko kotizaziopeko pentsioen osagarriaren denbora-irismena.*

1. Genero-arrakala txikitzera bideratutako kotizaziopeko pentsioen osagarria aitortzeko eskubidea jasotzen du 60. artikulua eta hari eutsiko zaio, baldin eta genero-arrakala ehuneko 5etik gorakoa bada aurreko urtean sortutako erretiro-pentsioetan.

2. Lege honen ondoretarako, erretiro-pentsioetan dagoen genero-arrakalatzat hartuko da gizonak eta emakumeek urtebetean eragindako kotizaziopeko erretiro-pentsioen batez besteko zenbatekoaren arteko aldea adierazten duen ehunekoak.

3. Pentsioetako genero-arrakala txikitzeko sartutako zuzenketa-neurriaren egokitasuna bermatzeko, Espainiako Gobernuak bost urtean behin haren ondorioak ebaluatu beharko ditu Elkarriketa Sozialaren esparruan.

4. Urtebeteko genero-arrakala ehuneko 5etik beherakoa denean, Gobernuak 60. artikulua indargabetzeko lege-proiektua igorriko die Gorte Nagusiei, gizarte-eragileei kontsulta egin ondoren».

Lau. Xedapen iragankor bat gehitzen da, hogeita hamahirugarrena, honela idatzita:

«Hogeita hamahirugarren xedapen iragankorra. *Amatasun-osagarriari aldi baterako eustea Gizarte Segurantzaren sistemako kotizaziopeko pentsioetan.*

60. artikuluan aurreikusitako aldaketa indarrean jartzen den egunean ekarpen demografikoagatik amatasun-osagarria jasotzen ari direnek osagarria kobratzen jarraituko dute.

Amatasun-osagarri hori jasotzea bateraezina izango da beste pentsio publiko bat aitortzeagatik legokiokeen genero-arrakala txikitzeko kotizaziopeko pentsioen osagarriarekin, eta interesdunek bata edo bestea aukeratu ahal izango dute.

Baldin eta ekarpen demografikoagatik amatasun-osagarria jasotzeko eskubidea eman zuen seme-alabetako baten beste gurasoak genero-arrakala txikitzeko kotizaziopeko pentsioen osagarria eskatzen badu, eta jasotzea badagokio lege honen 60. artikuluan edo apirilaren 30eko 670/1987 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartu zen Estatuko Klase Pasiboen Legearen testu bategineko hemezortzigarren xedapen gehigarrian ezarritakoarekin bat, ordura arte jasotzen ari

zen amatasun-osagarritik kenduko da aitortzen zaion hileko zenbatekoa. Horrek ondore ekonomikoak izango ditu ebazpena eman eta hurrengo hilaren lehen egunetik, baldin eta ebazpena eskaera egin edo pentsioa aitortu eta hurrengo sei hilabeteen barruan ematen bada; epe hori igarota, ebazpena eman eta hurrengo zazpigarren hilaren lehenengo egunetik aurrera sortuko dira ondoreak».

2. artikulua. *Estatuko Klase Pasiboen Legearen testuategina, apirilaren 30eko 670/1987 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitakoa, aldatzea.*

Aldatu egiten da Estatuko Klase Pasiboen Legearen testuategina, apirilaren 30eko 670/1987 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitakoa, eta honela geratzen da idatzita:

Bat. Aldatu egiten da hemezortzigarren xedapen gehigarria, eta honela geratzen da idatzita:

«Hemezortzigarren xedapen gehigarria. *Genero-arrakala txikitzeko osagarria.*

1. Seme-alaba bat edo gehiago izan dituzten eta nahitaezko erretiro-pentsio baten edo zerbitzu-ezintasun iraunkorraren edo klase pasiboen araubidean baliaezintasunaren edo alarguntasunaren onuradun diren emakumeek osagarri bat jasotzeko eskubidea izango dute seme-alaba bakoitzeko, oro har, genero-arrakalak emakumeen pentsioen zenbatekoan duen eraginagatik. Emakumeari seme-alaba bakoitzeko osagarri ekonomikoa jasotzeko eskubidea aitortuko zaio, edo, aitortuta badu, eskubideari eutsiko dio, baldin eta beste gurasoak osagarria eskatzen ez badu, edo aitortzen ez bazaio; beste gurasoa ere emakumea bada, zenbateko txikiagoko pentsio publikoak jasotzen dituenari aitortuko zaio.

Gizonek osagarria jasotzeko eskubidea izan dezaten, baldintza hauetakoren bat bete beharko dute:

a) Beste gurasoaren heriotzagatik, elkarrekin dituzten seme-alabengatik alarguntza-pentsioa jasotzea, baldin eta horietako batek zurtasun-pentsioa jasotzeko eskubidea badu.

b) Nahitaezko erretiro- edo jubilazio-pentsio bat edo zerbitzu-ezintasun iraunkorragatik edo baliaezintasunagatik pentsioa jasotzea, eta jaiotzaren edo adopzioaren ondorioz bere karrera profesionala eten edo kaltetu izana, baldintza hauen arabera:

1.a 1994ko abenduaren 31ra arte jaiotako edo adoptatutako seme-alabak badira, Estatuari benetako zerbitzurik eman gabe ehun eta hogeita egun baino gehiago izatea, testuategin honen 32. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, jaiotzaren aurreko bederatzita hilabeteen eta data horren ondorengo hiru urteen artean, edo, adoptatutako seme-alabak badira, adopzioa eratzen duen ebazpen judizialaren dataren eta hurrengo hiru urteen artean, baldin eta aitortutako pentsioen zenbatekoen batura emakumeari dagozkion pentsioen batura baino txikiagoa bada.

2.a 1995eko urtarrilaren 1etik aurrera jaiotako edo adoptatutako seme-alabak badira, jaiotzaren edo adopzioa eratzen duen ebazpen judizialaren ondorengo hogeita lau hilabeteetan funtzionarioak jarduneko zerbitzua utzi badu edo lanaldia ehuneko 15ean baino gehiagoan murriztu badu aurreko hogeita lau hilabeteekin alderatuta, baldin eta aitortutako pentsioen zenbatekoen batura emakumeari dagozkion pentsioen batura baino txikiagoa bada.

3.a Bi gurasoak gizonezkoak badira eta biek aurreko baldintzak betetzen badituzte, zenbateko txikieneko pentsio publikoak jasotzen dituenari aitortuko zaio.

4.a Osagarria jasotzeko eskubidea sortzeko, aitortutako pentsioen batura beste gurasoari dagozkion pentsioen batura baino txikiagoa izatea eskatuko da bi gurasoek kotizaziopeko prestazioa jasotzeko eskubidea sortzen duten unean, arauan aurreikusitako moduan.

2. Bigarren gurasoari osagarria aitortuz gero, lehen gurasoari aitortutako osagarria iraungi egingo da, eta ondore ekonomikoak izango ditu ebazpena eman eta hurrengo hilaren lehen egunetik aurrera, betiere ebazpena eskaera egin eta hurrengo sei hilabeteen barruan ematen bada, edo, hala badagokio, hura eragin duen pentsioa aitortu eta hurrengo sei hilabeteen barruan; epe hori igarotakoan, zazpigarren hilaren lehen egunetik aurrera izango ditu ondoreak.

Bigarren gurasoari eskubidea aitortzen dion ebazpena eman aurretik, osagarria jasotzen ari denari entzungo zaio.

3. Seme-alabengatiko osagarriaren zenbatekoa Estatuko Aurrekontu Orokorren Legean finkatuko da. Jaso beharreko zenbatekoa seme edo alaba bakoitzeko finkatutako hileko zenbatekoa halako lau izango da gehienez, eta urte bakoitzaren hasieran igoko da, dagokion Estatuaren Aurrekontu Orokorren Legean kotizaziopeko pentsioetarako aurreikusitako ehuneko berean.

Osagarria jasotzeko, arau hauek ere bete beharko dira:

a) Seme-alaba bakoitzak osagarri ekonomiko bat soilik jasotzeko eskubidea emango du.

Osagarria jasotzeko eskubidea eta horren zenbatekoa zehazteko, pentsioa eragin duen gertaeraren aurretik bizirik jaiotako edo adoptatutako seme-alabak bakarrik hartuko dira kontuan.

b) Aitari edo amari ez zaio aitortuko osagarri ekonomikoa jasotzeko eskubidea, baldin eta guraso-ahalari atxikitzen zaizkion eginbeharrak ez betetzeagatik guraso-ahala kendu bazaio epai baten bidez, edo auzi kriminalean edo ezkontzako auzian emandako epaiaren bidez.

Osagarria jasotzeko eskubidea ez zaio aitortuko, ezta ere, emakumearen aurkako indarkeriaren ondorioz kondenatua izan den aitari, legeak edo Espainiak berretsitako nazioarteko tresnen bidez zehaztutako moduan, indarkeria hori amaren aurka gauzatu bada, ezta seme-alaben aurka indarkeria erabiltzeagatik kondenatua izan den aitari edo amari ere.

c) Osagarria hamalau ordainsaritan ordainduko da, osagarri hori jasotzeko eskubideak zehazten duen pentsioarekin batera.

d) Osagarriaren zenbatekoa ez da kontuan hartuko 27.3 artikuluan aurreikusitako pentsioen gehieneko muga aplikatzean.

e) Osagarri honen zenbatekoa ez da laneko diru-sarreratzat edo etekintzat hartuko 27.2 artikuluan aurreikusitako gutxienekorako osagarria jasotzeko eskubidea izateko baldintzak betetzen diren ala ez zehazterakoan. Baldintza horiek betetzen direnean, pentsioaren gutxieneko zenbatekoa aitortuko da, Estatuko Aurrekontu Orokorren Legeak urtero ezartzen duenaren arabera. Zenbateko horri genero-arrakala txikitzeko osagarria gehituko zaio.

f) Osagarria jasotzeko eskubidea zehazten duen pentsioa aseguru-aldiak *pro rata temporis* delakoaren bidez guztizkora eramanez sortzen bada, nazioarteko araudia beteta, osagarriaren benetako zenbatekoa lortzeko, aurreko apartatuan aipatutako zenbatekoari —zenbateko teorikotzat hartuko baita— dagokion pentsioari aplikatutako hainbanaketa aplikatuko zaio.

4. Bigarren apartatuan xedatutakoa alde batera utzi gabe, onuradunak 1. apartatuko pentsioetako bat jasotzen duen bitartean ordainduko da osagarria. Ondorioz, osagarriaren sorrera, etendura eta azkentzea bat etorriko dira hura aitortzea eragin duen pentsioarenarekin. Hala ere, pentsio hori eten edo azkentzeko unean onuradunak 1. apartatuan adierazitakoen artetik beste pentsioen bat jasotzeko eskubidea badu, osagarriaren ordainketa mantendu egingo da, eta azken horri lotuta geratuko da.

5. Gizarte Segurantzako edozein araubidetan aitor daitezkeen osagarriak bateraezinak izango dira elkarren artean, eta pentsioaren eragileak alta-aldi gehien dituen araubidean ordainduko dira.

6. Genero-arrakala txikitzera bideratutako osagarria aitortzeko eskubideari eutsiko zaio, baldin eta genero-arrakala ehuneko 5etik gorakoa bada aurreko urtean sortutako erretiro-pentsioetan, urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bategineko hogeita hamazazpigarren xedapen gehigarrian aurreikusitako baldintzetan».

Bi. Hamalagarren xedapen iragankorra gehitzen da, honela idatzita:

«Hamalagarren xedapen iragankorra. *Klase Pasiboen pentsioetan amatasun-osagarria aldi baterako mantentzea.*

Hemezortzigarren xedapen gehigarrian aurreikusitako genero-arrakala txikitzeko osagarria indarrean jartzen den egunean amatasun-osagarria jasotzen ari direnek osagarria kobratzen jarraituko dute.

Amatasun-osagarri hori jasotzea bateraezina izango da beste pentsio publiko bat aitortzeagatik legokiokeen genero-arrakala txikitzeko osagarriarekin, eta interesdunek bata edo bestea aukeratu ahal izango dute.

Baldin eta ekarpen demografikoagatik amatasun-osagarria jasotzeko eskubidea eman zuen seme-alabetako baten beste gurasoak genero-arrakala txikitzeko osagarria eskatzen badu, eta jasotzea badagokio arau honen hemezortzigarren xedapen gehigarrian edo urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Gizarte Segurantzako Lege Orokorraren testu bategineko 60. artikuluan xedatzen denarekin bat, ordura arte jasotzen ari zen amatasun-osagarritik kenduko da aitortzen zaion hileko zenbatekoa. Horrek, ondore ekonomikoak izango ditu ebazpena eman eta hurrengo hilaren lehen egunetik, baldin eta ebazpena eskaera egin edo pentsioa aitortu eta hurrengo sei hilabeteen barruan ematen bada; epe hori igarota, ebazpena eman eta hurrengo zazpigarren hilaren lehenengo egunetik aurrera sortuko dira ondoreak».

II. KAPITULUA

Bizitzeko gutxieneko diru-sarreraren arloko neurriak

3. artikulua. *Bizitzeko Gutxieneko Diru Sarrera ezartzen duen maiatzaren 29ko 20/2020 Errege Lege Dekretua aldatzea.*

Aldatu egiten da 20/2020 Errege Lege Dekretua, maiatzaren 29koa, Bizitzeko Gutxieneko Diru Sarrera ezartzen duena, eta honela geratzen da idatzita:

Bat. Aldatu egiten da 4. artikulua, eta honela geratzen da idatzita:

«4. artikulua. *Onuradunak.*

1. Honako hauek izan daitezke bizitzeko gutxieneko diru-sarreraren onuradun:

a) Bizikidetzaren unitate bateko kideak, errege lege-dekretu honetan ezarritako baldintzetan.

b) Hogeita hiru urtetik gorako pertsonak, erretiroagatik edo ezintasun iraunkorragatik kotizaziopeko pentsioaren onuradun edo baliarezintasunagatik edo erretiroagatik kotizazio gabeko pentsioaren onuradun ez direnak, baldin eta ez badira errege lege-dekretu honen araberrako bizikidetzaren unitate batean bizi, eta ez badaude beste unitate bati lotuta ezkontzaz edo izatezko bikote gisa, banantze- edo dibortzio-izapideak hasi dituztenak edo erregelamendu bidez zehatz daitezkeen beste egoera batzuetan daudenak izan ezik.

Ez zaie eskatuko adinaren baldintza betetzea, ezta banantze- edo dibortzio-izapideak hasi beharra ere, genero-indarkeriaren edo giza salerosketaren eta sexu-esplotazioaren biktima diren emakumeei.

2. Bizitzeko gutxieneko diru-sarreraren onuradun izan ahalko dira egoitza-zerbitzu, zerbitzu sozial, sanitario edo soziosanitarioen aldi baterako erabiltzaileak.

Aurreko paragrafoan aurreikusitako egoitza-zerbitzuaren prestazioa iraunkorra izan ahalko da genero-indarkeriaren edo giza salerosketaren eta sexu-esplotazioaren biktima diren emakumeentzako, bai eta erregelamendu bidez ezartzen diren beste salbuespen batzuetan ere.

3. Onuradunek 7. artikuluan ezartzen diren betekizunak bete beharko dituzte prestazioa eskuratzeko, bai eta eskubideari eusteko 33. artikuluan ezartzen diren betebeharrak ere».

Bi. Aldatu egiten da 5.1 artikulua, eta 5. apartatua kentzen da:

«1. Hauek dira prestazio horren titularrak: jarduteko gaitasun juridikoa duten pertsonak, prestazio hori eskatzen eta jasotzen dutenak beren izenean edo bizikidetzaren baten izenean. Azken kasu horretan, titularrak hartuko du bere gain unitate horren ordezkartza.

Hala badagokio, judizialki ezgaituta ez dauden bizikidetzaren kide adindun guztiek sinatu beharko dute eskabidea. Erabakiak hartzeko laguntza-neurriak judizialki ezarrita dituzten pertsonak neurri horietan xedatutakoaren arabera jardungo dute».

Hiru. Azken paragrafo bat gehitzen zaio 6.1 artikuluari, eta 2., 3., 6. eta 7. apartatuak kentzen dira; horrela, egungo 4. eta 5. apartatuak 2. eta 3. apartatu izango dira hemendik aurrera. Honela geratzen da idatzita 1. apartatuaren azken paragrafoa:

«1. [...]

Udal-errolaren kudeaketari buruz udalei dagozkien jarraibide teknikoak aplikatuz, establezimendu kolektiboetan errolatuta dauden pertsonen kasuan, edo, etxerik ez dutelako eta normalean udalerritan bizi direlako gezurrezko egoitza batean errolatuta daudenen kasuan, 6 ter artikuluan ezarritakoa aplikatuko da».

Lau. Artikulu bat gehitzen da, 6 bis artikulua, honela idatzita:

«6 bis artikulua. *Egoera bereziak.*

1. Bizikidetzaren kide ez diren onuraduntzat edo, hala badagokio, bizikidetzaren kide independente bateko kide diren onuraduntzat joko dira etxebizitza berean beste pertsona batzuekin bizi diren pertsonak, 6.1 artikuluan aurreikusitako loturetako bat badute eta honako egoera hauetako batean badaude:

a) Genero-indarkeriaren biktima den emakume batek familiaren ohiko bizilekua utzi badu, seme-alabekin batera edo adopzioarako zaintza-araubidean edo familia-harrera iraunkorrean dauden adingabeekin batera edo horiek gabe.

b) Banantzeko, ezkontza deuseztatzeko edo dibortziatzeko izapideak hasi direlako, edo formalki eraturako izatezko bikotea desagiteko eskatu delako, pertsona batek familiaren ohiko bizilekua utzi duenean, seme-alabekin batera edo adopzioarako zaintza-araubidean edo familia-harrera iraunkorrean dauden adingabeekin batera edo horiek gabe. Formalizatu gabeko izatezko bikoteek bizikidetzaren eten badute, prestazioa eskatzen duen pertsonak egiaztatu egin beharko du, hala badagokio, adingabeen zaintza eta jagoletza esleitzeko izapideak hasi dituela.

c) Etxebizitzaren utzarazpenetatik etxea utzi izana egiaztatzen denean, edo istripuagatik edo ezinbesteko arrazoiengatik bizilekuan bizitzeko ezintasuna egiaztatzen baldin bada, bai eta erregelamenduz ezartzen diren beste kasu batzuk ere.

b) eta c) letretan aurreikusitako kasuetan, apartatu honek jasotzen duen unitate independentetzat hartuko da egoera horretan dagoena, baina dena delako egitatea gertatu eta hurrengo hiru urteetan soilik».

Bost. Artikulu bat gehitzen da, 6 ter artikulua, honela idatzita:

«6 ter artikulua. *Zer hartuko den bizilekutzat kasu berezietan.*

1. 6.1 artikulua laugarren paragrafoan aurreikusitako kasuetan, honako hauek osatuko dute bizikidetzaren unitatea: ezkontza bidez elkartutako pertsonak; izatezko bikotekideak; eta, hala badagokio, lehenengo mailarainoko odol- edo ezkontza-ahaidetasuna duten haien ondorengo adingabeak, edo adopzio-lotura duten edo adopzio-helburuko zaintza edo familia-harrera iraunkorrerako araubidea dela-eta elkarrekin bizi direnak. Ondorengoek bigarren mailarainoko odol-ahaidetasuna izan dezakete, baldin eta lehen mailako aurrekoekin erroldatuta ez badaude.

2. Kontratu bidez egiaztatzen bada pertsona bakar batek edo bizikidetzaren unitate batek hotel-establezimendu batean edo antzekoan logela bat erabili duela, egoitza hartuko da arau honetan aurreikusitako ondoretarako.

3. Titulu juridiko bidez egiaztatzen bada pertsona bakar batek edo 6. artikuluan aurreikusitako bizikidetzaren unitate batek bakarrik erabiltzen duela bizilekuko eremu jakin bat, erabilera eskusiboko eremu hori egoitza hartuko da errege legedekretu honetan aurreikusitako ondoretarako».

Sei. Artikulu bat gehitzen da, 6 quater artikulua, honela idatzita:

«6 quater artikulua. *Ahaidetasun-loturarik gabeko bizikideak.*

Etxebizitza berean 6. artikuluan adierazitako loturak ez dituzten pertsonak bizi badira, bizitzeko gutxieneko diru-sarreraren titular izan ahalko dira 19.10 artikuluan aurreikusitakoaren arabera bazterkeria jasateko arriskuan daudenak».

Zazpi. Letra bat gehitzen zaio 14.1 artikuluari, d) letra, eta egungo d) eta e) letrak e) eta f) letrak izango dira.

«d) Kautelaz, xedatutako epean 19 bis artikulua jasotzen dituen txostenak eguneratzeari edo aldatzeari buruzko jakinarazpenik jaso ez bada».

Zortzi. Bi apartatu gehitzen zaizkio 19. artikuluari, 9. eta 10. apartatuak, honela idatzita:

«9. Gizarte-zerbitzu eskudunek emandako ziurtagiria eskatuko da, baldintza hauek egiaztatzeko beharrezkoa denean:

a) 7.1.a) artikuluan aurreikusitakoaren ondoretarako, eskabidea egiten den egunean gezurrezko egoitza batean erroldatuta dauden pertsonak Espainian benetan bizi direla egiaztatzeko, udalenzako udal-eroldaren kudeaketari buruzko jarraibide teknikoak aplikatuz.

b) Bizitegi-zerbitzu sozial, sanitario edo soziosanitarioa aldi baterako eman izana egiaztatzeko, baldin eta bizitzeko gutxieneko diru-sarrera eskatzen duena zerbitzu horren erabilzaile bada.

c) Erroldan agertzen den bizilekuan ez dela bizi alegatu duen pertsonaren benetako bizilekua zein den egiaztatzeko.

d) 6.1 artikuluan aurreikusitako loturarik ez izatea egiaztatzeko, lotura horiek dituzten bizitzeko gutxieneko diru-sarreraren eskatzaileez gain, bizileku berean beste pertsona batzuk erroldatuta daudenean, baldin eta haiekin ahaidetasunik, odol-ahaidetasunik edo ezkontza-ahaidetasunik ez dutela edo izatezko bikoterik eratu ez dutela alegatzen bada.

e) Bizikide guztien edo batzuen artean 6.1 artikuluan aurreikusitako loturarik ez dagoela egiaztatzeko, baldin eta haietako batek bizitzeko gutxieneko diru-sarrera eskatzen badu, 6 quater artikuluan xedatutakoari jarraikiz.

f) 7. artikuluko 2. eta 3. apartatuetan ezarritako baldintzak betetzen direla egiaztatzeko, Espainian modu independentean bizi izana eta eskabidea aurkeztu aurreko urtean gutxienez bizikidetza-unitate bateko kide izatea, hurrenez hurren.

10. Nolanahi ere, gizarte-zerbitzu eskudunek emandako ziurtagiria beharko da gizarte-bazterkeria jasateko arriskua egiaztatzeko, 6 quater artikuluko kasuetan».

Bederatzi. 19 bis artikulua gehitzen da, honela idatzita:

«19 bis artikulua. *Prestazioa kudeatzen duen erakundeari jakinarazteko betebeharra.*

Urtero, gizarte-zerbitzuek erakunde kudeatzaileari jakinaraziko diote 19.9 artikuluko d) eta e) letretan aurreikusitako txostenak eta 19.10 artikuluan ezarritako gizarte-bazterkeriari buruzko txostena eguneratu edo aldatu behar diren».

Hamar. Aldatu egiten da 25.3 artikulua, eta honela geratzen da idatzita:

«3. Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalak ebazpena emango du, eta eskatzaileari jakinaraziko dio ebazpena, eskabidea erregistroan sartu eta gehienez ere sei hilabeteko epean.

Epe horretan berariazko ebazpenik jakinarazten ez bada, ezetsizat joko da.

Udal-errolaren kudeaketari buruz udalei emandako jarraibide teknikoetan aurreikusitakoaren babesean errolatutako helbiderik gabeko pertsonen kasuan, udalerriko gizarte-zerbitzuetara bidaliko dira jakinarazpenak, edo, hala badagokio, interesdunak errolatuta dauden erakundearen egoitzara edo zentzora».

Hamaika. Aldatu egiten da 30.2 artikulua, eta honela geratzen da idatzita:

«2. Jarraipen-batzordearen burua Inklusioko, Gizarte Segurantzako eta Migrazioetako ministroa izango da, eta batzordea hauek osatuko dute: Gizarte Segurantzako eta Pentsioetako estatu-idazkariak, Gizarteratzeko eta Gizarte Aurreikuspeneko Helburu eta Politiken Idazkaritza Nagusiak, Inklusioko, Gizarte Segurantzako eta Migrazioetako Idazkariordetzak, Gizarte Eskubideetako eta Agenda 2030eko Ministerioko Gizarte Eskubideen estatu-idazkariak, Berdintasunerako eta Genero Indarkeriaren aurkako Estatu Idazkaritzak edo hark eskuordetzen duen zuzendaritza-organoak, bai eta erregelamendu bidez, bizitzeko gutxieneko diru-sarrerari dagokionez, ezartzen diren Estatuko Administrazio Orokorreko beste ordezkari batzuek ere, eta gaiaren arabera eskumena duten autonomia-erkidegoetako sailtako titularrek eta toki-administrazioaren ordezkariak. Aztertu beharreko gaiak direla-eta autonomia-erkidegoetako edo toki-administrazioaren ordezkariak bertaratzea beharrezkoa ez bada, idazkariaren eskariz, batzordea haiek gabe eratu ahal izango da, eta, kasu horietan, beharrezkoa izango da alde zuzeneko administrazio horietako ordezkari horren berri ematea eta gai-zerrendaren edukia jakinaraztea».

Hamabi. Aldatu egiten da 31.2 artikulua, eta honela geratzen da idatzita:

«2. Aholku-kontseiluak Inklusioko, Gizarte Segurantzako eta Migrazioetako ministroa izango du buru; eta bertan hauek parte hartuko dute: Gizarteratzeko eta Gizarte Aurreikuspeneko Helburu eta Politiken Idazkaritza Nagusiak, zuzendari nagusi batek (Gizarte Eskubideetako eta Agenda 2030eko Ministerioak izendatuko du), Emakumeen Institutuko zuzendariak, bai eta erregelamendu bidez, bizitzeko gutxieneko diru-sarrerari dagokionez, ezartzen diren Estatuko Administrazio Orokorreko beste ordezkari batzuek, sindikatu- eta enpresa-erakunde nagusiek, eta

Espainiako lurraldean estaldura handiena duten gizarte-ekintzako hirugarren sektoreko erakundeek ere».

Hamahiru. Artikulu bat gehitzen da, 33 bis artikulua, honela idatzita:

«33 bis artikulua. *Erroldan egindako aldaketak jakinarazteko udal-betebeharra.*

Udal-erroldaren kudeaketari buruz udalei emandako jarraibide teknikoetan aurreikusitakoaren babesean erroldatutako helbiderik gabeko pertsonen kasuan, erroldatuta dauden udalerriko Udalak Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalari jakinarazi beharko dio aldaketa edo, hala badagokio, erroldan baja eman zaiola, aldaketa gertatu eta hogeita hamar eguneko epean».

Hamalau. Zortzigarren xedapen iragankorra gehitzen da testuan, honela idatzita:

«Zortzigarren xedapen iragankorra. *Gizarte-ekintzako hirugarren sektoreko erakundeen lankidetzeta, bizitzeko gutxieneko diru-sarrerara kudeatzeko.*

1. Salbuespen gisa, errege lege-dekretu hau indarrean jarri eta hurrengo bost urteetan, gizarte-ekintzako hirugarren sektoreko erakundeek —lankidetzeta helburu horretarako sortzen den erregistroan behar bezala inskribatuta egongo baitira— 19.9 eta 10. artikuluetan aurreikusitako inguruabarrak egiaztatzeko ziurtagiria egin ahal izango dute.

Gizarte-bitartekariak bizitzeko gutxieneko diru-sarrerari buruz emandako ziurtagiriak erakundeak gizarte-langile batek (elkargokidea izan beharko da) sinatu beharko ditu. Ziurtagirian elkargokide-zenbakia jasoko da.

Urtean behin, bizitzeko gutxieneko diru-sarreraren gizarte-bitartekariak erakunde kudeatzaileari jakinaraziko diote 19.9 artikuluko d) eta e) letretan adierazitako txostenak eta 19.10 artikuluan ezarritako gizarte-bazterkeriari buruzko txostena eguneratu edo aldatu egin behar diren. Ezarritako epean jakinarazten ez bada, eten egingo da prestazioaren ordainketa.

Erakunde kudeatzaileak, 20.4 artikuluan aurreikusitako baldintzetan, bizitzeko gutxieneko diru-sarreraren gizarte-bitartekariak jakinarazi ahal izango dizkie bizitzeko gutxieneko diru-sarreraren prestazioen ebazpenak, haiek esleituta dituzten jarduerak egin ditzaten, bizitzeko gutxieneko diru-sarrera hori kudeatzeko eta kontrolatzeko ardura duen Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalarekiko lankidetzaren esparruan.

Gizarte-ekintzako hirugarren sektoreko erakundeak Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalari jakinarazi beharko diote prestazioaren kudeaketari eta kontrolari eragiten dion edozein aldaketa, aldaketa horiek gertatu eta hogeita hamar eguneko epean, baldin eta beren egoitza edo zentroetan pertsonak erroldatuta badituzte, udal-erroldaren kudeaketari buruz udalei emandako jarraibide teknikoetan aurreikusitakoa betez.

2. Errege lege-dekretu honetan aurreikusitakoaren ondoretarako, bizitzeko gutxieneko diru-sarreraren gizarte-bitartekariak gizarte-ekintzako hirugarren sektoreko erakundeak dira, Gizarte-ekintzako hirugarren sektoreari buruzko urriaren 9ko 43/2015 Legearen 2. artikuluan aurreikusitako definizioaren arabera, eta behar bezala erregistratuta egon behar dira Bizitzeko Gutxieneko Diru Sarreraren Gizarte Bitartekarien Erregistroan.

Horretarako, Bizitzeko Gutxieneko Diru Sarreraren Gizarte Bitartekarien Erregistroa sortzen da, Inklusioko, Gizarte Segurantzako eta Migrazioetako Ministerioaren titulartasuneko erregistro publikoa. Kudeatzailea Gizarteratzeko eta Gizarte Aurreikuspeneko Helburuen eta Politiken Idazkaritza Nagusia izango da.

3. Baldintza hauek betetzen dituztela egiaztatzen duten gizarte-ekintzako hirugarren sektoreko erakunde guztiak inskribatu ahal izango dira Bizitzeko Gutxieneko Diru Sarreraren Gizarte Bitartekarien Erregistroan:

a) Izaera juridikoaren arabera legez eratuta eta dagokion erregistroan inskribatuta egotea, Bizitzeko Gutxieneko Diru Sarreraren Gizarte Bitartekarien Erregistroan inskribatzeko eskaera egin baino hiru urte lehenagotik gutxienez.

b) Irabazi-asmorik ez izatea, estatutuetan ezarritakoaren arabera.

c) Estatu-mailako erakundeak izatea, estatutuetan ezarritakoaren arabera.

d) Burutu beharko dituzten jarduerak egiteko erakunde-helburu egokiak izatea, estatutuetan ezarritakoaren arabera.

e) Interes orokorreko gizarte-jarduerak garatzea, estatutuetan ezarritakoaren arabera.

f) Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatea.

g) Erakundea bera eta haren legezko edozein ordezkari epai irmo bidez bere jarduerarekin lotutako delituengatik kondenatuta ez egotea.

h) Helburuak betetzen direla bermatzeko behar besteko egitura, administrazio-gaitasuna eta gaitasun teknikoa izatea. Hori egiaztatzeko, erakunde eskatzailearen egiaztagiria aurkeztu beharko da.

i) Autonomia-erkidego eta autonomia-estatutudun hiri guztietan pertsoneri zuzenean arreta emateko guneak daudela egiaztatzea.

j) Erakundearen azken hiru ekitaldi ekonomikoetako kontabilitate-ikuskapena aurkeztea.

k) Gutxienez hiru urteko esperientzia egiaztatzea gizarte-bazterkeria pairatzeko arriskuan dauden pertsoneri laguntza ematen. Baldintza hori betetzeko, erakunde eskatzailearen ziurtagiria aurkeztu beharko da.

l) Errege lege-dekretu honetan jasotako edozein arau-hausterengatik zehapenik jaso ez izana, inskribatzeko eskabidea aurkeztu aurreko hiru urteetan.

4. Bizitzeko Gutxieneko Diru Sarreraren Gizarte Bitartekarien Erregistroan inskribatzeko prozedura:

a) Bizitzeko Gutxieneko Diru Sarreraren Gizarte Bitartekarien Erregistroan inskribatzeko, Gizarteratzeko eta Gizarte Aurreikuspeneko Helburu eta Politiken Idazkaritza Nagusiaren titularraren ebazpena beharko da, erakunde interesdunak aldeztu aurretik hala eskatuta.

b) Hasierako eskabideak ez baditu betetzen errege lege-dekretu honetan ezarritako betekizun guztiak edo aplikatu dakizkiokeen gainerako betekizunak, interesdunari eskatuko zaio hamar eguneko epean akatsa zuzentzeko edo nahitaezko dokumentuak aurkezteko, eta adieraziko zaio, hala egin ezean, eskaeran atzera egin duela ulertuko dela.

c) Eskabidea izapidetzeko onartu ondoren, administrazio-prozedura izapidetzen hasiko da, erregistroan inskribatzeko bete behar diren baldintzak betetzen direla egiaztatzeko.

d) Gizarteratzeko eta Gizarte Aurreikuspeneko Helburu eta Politiken Idazkaritza Nagusiaren titularrak ebazpena emango du, eta erakunde eskatzaileari jakinaraziko dio, gehienez ere hiru hilabeteko epean, eskabidea erregistroan sartzen den egunetik hasita.

Epe horretan berriazko ebazpenik jakinarazten ez bada, ezetsizat joko da.

e) Gizarte Bitartekarien Erregistroan inskribatzeak urtebeteko balioa izango du, eta luzatu egin ahal izango da. Luzapen hori automatikoa izango da, salbu eta erregistroan baja eman dela jakinarazten bada. Luzapenaren lehen hiru hilabeteetan baldintzak betetzen direla egiaztatzen beharko da, eta epe hori igarotakoan baldintzak betetzen jarraitzen dela egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztu ez bada, baja ofizioski izapidetuko da.

f) Erregistroan inskribatutako erakundeek aldizkako egiaztapen-informazioa igorri beharko dute, xedapen honetan aipatzen den garatzeko ministerio-aginduek ezartzen duenaren arabera aribidean dituzten ziurtapen-jarduketegi buruzko egiaztapen-informazioa.

g) Erregistroko inskripzioa aldi baterako etetea edo uztea erabaki ahal izango da zehapen-espeditate bat izapidetzen ari denean edo falta oso astun batengatik zehatua izan denean.

5. Bizitzeko gutxieneko diru-sarreraren gizarte-bitartekarien zehapen-araubidea.

VIII. kapituluan ezarritakoa alde batera utzi gabe:

a) Arau-hauste arinak dira:

Errege lege-dekretu honetan eskatzen den informazioa ez bidaltzea hamabost eguneko epean, bidali beharra dagoen egunetik zenbatzen hasita.

b) Arau-hauste oso astunak dira:

1. a Kasuan kasuko erakundeak Bizitzeko Gutxieneko Diru Sarreraren Gizarte Bitartekarien Erregistroan inskribatzeko baldintza edo betekizunetatik edozein faltsutzea.

2.a Bizitzeko Gutxieneko Diru Sarreraren Gizarte Bitartekarien Erregistroan inskribatutako erakundeek errege lege-dekretu honetan jasotako informazioa bidaltzeko betebeharra ez betetzea urtebete hiru aldiz.

c) Xedapen honetan ezarritako arau-hauste arina ohartarazpenarekin zehatuko da.

d) Bizitzeko Gutxieneko Diru Sarreraren Gizarte Bitartekarien Erregistroan inskribatuta dagoen erakunde batek xedapen honetan ezarritako arau-hauste oso astuna egiten bada, erregistroan baja emango zaio, kasuan kasuko erantzukizun penalak, zibilak edo administratiboak alde batera utzi gabe».

III. KAPITULUA

Gizarte Segurantzaren arloko beste neurri batzuk

4. artikulua. *Enpleguaren aldeko gizarte-neurriak indartzen eta finkatzen dituen urtarrilaren 26ko 2/2021 Errege Lege Dekretua aldatzea.*

Bat. Aldatu egiten da 5.9 artikulua bigarren paragrafoa, eta honela geratzen da idatzita:

«Eskabidea epez kanpo aurkezten bada, prestazioa jasotzeko eskubidea eskaera egiten den egunean hasiko da. Kasu horietan, langileak ez du kotizatu beharrik izango prestazioa eskatu duen hileko lehen egunetik aurrera».

Bi. Paragrafo bat gehitzen zaio 7.5.2 artikuluari, honela idatzita:

«Hala ere, eta 2019ko bigarren seihilekoan izandako norberaren konturako jarduerak sortutako diru-sarrerak, zerga bidez zenbatu daitezkeenak, % 50 baino gehiago murriztu direla egiaztatze aldera, zenbatespen objektiboaren bidez zergak ordaintzen dituzten langile autonomoek murrizketa hori izan dutela ulertuko da, baldin eta dagokion jarduera ekonomikoan afiliatuta eta Gizarte Segurantzako sisteman alta emanda dauden langileen eguneko batez besteko kopurua, 4 digituren bidez adierazia (EJSN), 2019ko bigarren seihilekoari dagokion eguneko batez bestekoa baino ehuneko 7,5 txikiagoa bada prestazioa jaso den aldian zehar».

Hiru. Aldatu egiten da bigarren xedapen iragankorra, eta honela geratzen da idatzita:

«COVID-19 birusaren hedapenari eusteko irailaren 29ko 30/2020 Errege Lege Dekretuaren 13.1 artikulua babesean agintaritze eskudunak emandako ebazpenaren ondorioz 2021eko urtarrilaren 31n jarduera aldi baterako eten zaien langile autonomoentzako ezohiko prestazioa jasotzen ari ziren langile autonomoek prestazio hori jasotzen jarraitu ahal izango dute, betekizun eta baldintza berberak betez gero, jarduera etenda dagoen bitartean eta neurriak kentzea erabakitzen den hilabetearen azken egunera arte edo 2021eko maiatzaren 31ra arte, azken egun hori lehenagokoa bada».

5. artikulua. *Erretiro-pentsioa bateragarria izango da osasungintzako profesionalen estatutupeko langile izendatzearekin. Izendapen hori SARS-CoV-2 birusak eragindako infekzioen hedapena geldiarazteko alarma-egoera deklaratzeko duen urriaren 25eko 926/2020 Errege Dekretuaren babesean egingo da.*

1. Autonomia-erkidegoko agintaritze eskudunak, edo Kudeaketa Sanitarioko Institutu Nazionalak, Ceuta eta Melilla hiri autonomoetan, edo Defentsa Ministerioak, Defentsako Ospitale Sarean, hala xedatu dutelako, eta dagokien estatutu-izendapenaren bidez, zerbitzu aktibora itzultzen diren profesional sanitario, mediku eta erizain erretiratuek, bai eta langile emerituek ere, eskubidea izango dute lanean hasi aurretik jasotzen ari ziren erretiro-pentsioaren zenbatekoa jasotzeko, edozein modalitatetan jasotzen zutena, baita gutxienekorako osagarria ere, horretarako ezarritako baldintzak betetzen badituzte.

2. Onuraduna pentsioduntzat hartuko da ondore guztietarako.

3. Erretiro-pentsioarekin bateragarria den besteren konturako lan hori egiten den bitartean, autonomia-erkidegoek edo, hala badagokio, Kudeaketa Sanitarioko Institutu Nazionalak eta langileek bete egin behar dituzte Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren testu bategineko 16. artikuluan ezarritako afiliazio, alta, baja, eta datuak aldatzeko betebeharrak eta lege-testu bereko 18. eta 19. artikuluetan ezarritako moduan kotizatze betebeharra, eta ez da aplikatuko testu bereko 153. artikuluan xedatutakoa.

4. Lan hori egin bitartean, gertakari arrunt eta profesional guztien aurrean babestuta egongo dira, betiere horretarako bete beharreko baldintzak betetzen badituzte, eta Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren testu bateginean ezarritako pentsioak, bateraezintasunak eta aukera-eskubidea mugatzeko araubidea aplikatuko zaie.

5. Egoera horretan dagoen bitartean sortzen den aldi baterako ezintasunagatiko sorospenerako eskubidea indarrean dagoen araudian aurreikusitako arrazoi orokorreatatik iraungitzeaz gain, inoren konturako lana amaitzen denean iraungiko da.

6. Besteren konturako lana amaitu ondoren, egoera horretan egindako kotizazioek erretiro-pentsioaren oinarri arautzaileari aplikatu beharreko ehunekoa alda dezakete; oinarri arautzailea ez da aldatuko. Kotizazio horiek ez dute eraginik izango Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren testu bategineko 210.2 artikuluan eta Estatuko Klase Pasiboen Legearen testu bategineko hamazazpigarren xedapen gehigarrian aurreikusitako ehuneko gehigarrietan.

Era berean, aipatutako kotizazioek dagoeneko sortutako erretiro aurreratuei aplikatu beharreko ehunekoa zehazteko bakarrik izango dituzte ondoreak, eta oinarri arautzaile berari eutsiko diote.

6. artikulua. *Zerbitzu sanitarioak edo soziosanitarioak ematen ari direla beren lanbidean SARS-CoV-2 birusa hartu duten zentro sanitarioetako eta soziosanitarioetako profesionalak sortutako prestazioak.*

1. Osasunaren Mundu Erakundeak nazioarteko pandemia deklaratu zuenetik osasungintzako agintariek SARS-CoV-2 birusak eragindako osasun-krisiari aurre egiteko hartutako prebentzio-neurri guztiak kendu arte, dagozkien erregistroetan inskribatutako osasun-zentroetan eta zentro soziosanitarioetan zerbitzuak ematen dituzten langileek Gizarte Segurantzaren sistemak lanbide-gaixotasuna duten pertsonen ematen dizkien

prestazio berberak izango dituzte, baldin eta tarte horretan zerbitzu sanitarioak edo soziosanitarioak ematean hartu badute SARS-CoV-2 birusa.

2. Laneko arriskuen prebentziorako zerbitzuek txostena egin beharko dute, eta, bertan, adierazi beharko dute SARS-CoV-2 birusaren eraginpean egon direla lanean, zerbitzu sanitarioak edo soziosanitarioak emateagatik.

3. Lehenengo apartatuan ezarritako epealdian birusa hartu duela egiaztatu ondoren, eta 2. apartatuan aurreikusitako txostena aurkeztu ondoren, kutsatzea zerbitzu sanitarioetan edo soziosanitarioetan lanean ari zenean gertatu dela ulertuko da.

4. Gaixotasunaz kutsatzeagatik baja medikoa hartzen den unean lanbide-gertakariak estaltzen dituena izango da prestazio horien erakunde arduraduna.

II. TITULUA

Ekonomiaren arloko neurriak

7. artikulua. *Eskaera egiteko epea eta luzamenduen eta etenduren iraupena luzatzea.*

2021eko martxoaren 30era arte (egun hori barne) eskatu ahal izango dute finantzaketa-kuoten ordainketa luzatzea edo etetea, gehienez ere bederatzita hilabeterako, 8.1 artikuluan adierazitako arauen aplikazio-eremuan sartzen diren zordun hauek:

- a) Aldez aurretik luzamendua edo etendura eskatu ez dutenek, edo
- b) luzamendu edo etendura bat edo gehiago izan dituztenek, finantzaketa bakoitzeko bederatzita hilabete baino gutxiagoko guztizko epe metatua zehar.

8. artikulua. *Luzamenduen eta etenduren guztizko iraupena.*

1. 2020ko irailaren 30etik aurrera emandako legezko luzamendu eta etenduren edo akordio sektoriale atxikitako iraupen metatua ezin izango da bederatzita hilabetez gorakoa izan.

Apartatu honetan aurreikusitako ondoreetarako, xedapen hauen babesean emandakoak hartuko dira legezko luzamenduzat eta etenduratzat:

- a) 8/2020 Errege Lege Dekretua, martxoaren 17koa, COVID-19aren eragin ekonomiko eta sozialari aurre egiteko presako eta ezohiko neurriena
- b) 11/2020 Errege Lege Dekretua, martxoaren 31koa, Gizarte- eta ekonomia-arloan presako neurri osagarriak ezartzen dituena COVID-19ari aurre egiteko.
- c) 25/2020 Errege Lege Dekretua, uztailaren 3koa, Ekonomiaren suspertzea eta enplegua bultzatzeko premiazko neurriena.
- d) 26/2020 Errege Lege Dekretua, uztailaren 7koa, COVID-19ak izan duen eraginari aurre egite aldera garraio- eta etxebizitza-arloko ekonomia suspertzeko neurriena.

Apartatu honetan aurreikusitakoaren ondoreetarako, akordio sektorial bati atxikitako luzamenduzat hartuko dira maiatzaren 26ko 19/2020 Errege Lege Dekretuaren 6. artikulutik 8. artikulura bitartean araututakoak (19/2020 Errege Lege Dekretua, maiatzaren 26koa, COVID-19aren ondorioak arintzeko neurri osagarriak hartzen dituena nekazaritzaren, zientziaren, ekonomiaren, enplegu eta Gizarte Segurantzaren eta zergen arloetan).

2. Espainiako Bankuak gainbegiratutako erakunde mailegu-emaileek astero bidaliko dute artikulua hauetan luzamendu eta etendurei buruz ezarritako informazioa: martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuaren 16 bis artikuluan, martxoaren 31ko 11/2020 Errege Lege Dekretuaren 27. artikuluan, uztailaren 3ko 25/2020 Errege Lege Dekretuaren 9. artikuluan, uztailaren 7ko 26/2020 Errege Lege Dekretuaren 23. artikuluan eta maiatzaren 26ko 19/2020 Errege Lege Dekretuaren 6.3 artikuluan. Informazioa Espainiako Bankuak ezarritako moduan eta epean bidali beharko da.

9. artikulua. *Kreditu Ofizialeko Institutuak Espainiako Bankuak esleitutako kreditu-kalifikazioak eskuratzea.*

Kreditu Ofizialeko Institutuak, estatu-laguntzei buruzko Europako araudian ezarritako betebeharrak betetze aldera, abal publikoak ematean edo kudeatzean, eskubidea izango du, hala eskatzen duenean, enpresen banakako informazioa jasotzeko, hain zuzen ere, Espainiako Bankuak moneta-politika inplementatzearekin loturik ezartzen dituen kreditu-kalifikazioei buruzko informazioa. Kasu hori salbuetsita dago Kreditu-entitateen antolamendu, gainbegiraketa eta kaudimenari buruzko ekainaren 26ko 10/2014 Legearen 82. artikuluan araututako sekretu-betebeharretik. Kreditu Ofizialeko Institutuak modu konfidentzian tratatu beharko du kreditu-kalifikazioen banakako informazioa, eta abal publikoak emateko edo kudeatzeko estatu-laguntzei buruzko Europako araudian ezarritako betebeharrak betetzeko bakarrik erabili ahalko du.

Lehenengo xedapen gehigarria. *Genero-arrakala txikitzeko kotizaziopeko pentsioen osagarriaren hileko zenbatekoa zehaztu eta aplikatzea, urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bategineko 60. artikuluari eta apirilaren 30eko 670/1987 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Estatuko Klase Pasiboen Legearen testu bategineko hemezortzigarren xedapen gehigarriari jarraikiz.*

Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bategineko 60. artikuluan eta Estatuko Klase Pasiboen Legearen testu bategineko hemezortzigarren xedapen gehigarrian aurreikusitako osagarriaren zenbatekoa 27 eurokoa izango da hilean, 2021erako.

Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bategineko 60. artikuluan eta Estatuko Klase Pasiboen Legearen testu bategineko hemezortzigarren xedapen gehigarrian sartutako genero-arrakala txikitzeko osagarria errege lege-dekretu hau indarrean jartzen denetik aurrera sortutako pentsioei aitortuko zaie.

Bigarren xedapen gehigarria. *Martxoaren 17ko 8/2020, ekainaren 26ko 24/2020 eta irailaren 29ko 30/2020 errege lege-dekretuetan jasota dauden jarduerari uzteagatiko prestazioak eskuratu dituzten eta zergak zenbatespen objektiboaren bidez ordaintzen dituzten langile autonomoek fakturazioa murriztu dutela egiaztatzea.*

Martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuaren 17. artikuluan, ekainaren 26ko 24/2020 Errege Lege Dekretuaren 9. artikuluan eta irailaren 29ko 30/2020 Errege Lege Dekretuaren laugarren xedapen gehigarrian aipatzen den fakturazioa murrizteko betekizuna egiaztatze aldera, zenbatespen objektibo bidez zergak ordaintzen dituzten langile autonomoek murrizketa hori izan dutela ulertuko da, baldin eta dagokien jarduera ekonomikoan afiliatuta eta Gizarte Segurantzako sisteman alta emanda dauden langileen eguneko batez besteko kopurua, 4 digituren bidez adierazia (EJSN), 2019ko bigarren seihilekoari dagokion eguneko batez bestekoa baino ehuneko 7,5 txikiagoa bada prestazioa jaso den aldian zehar.

Hirugarren xedapen gehigarria. *Lanbide-gertakariengatiko babesaren barruan sartuko dira Osasun Zerbitzu Publikoetako eta Gizarte Segurantzako Institutu Nazionaleko ikuskaritza medikoko osasun-langileak eta Itsasoko Gizarte Institutuan zerbitzuak ematen dituzten Itsas Osasuneko osasun-langileak ere.*

Osasunaren Mundu Erakundeak nazioarteko pandemia deklaratu zuenetik osasungintzako agintariek SARS-CoV-2 birusak eragindako osasun-krisiari aurre egiteko prebentzio-neurri guztiak kendu bitartean, Osasun Zerbitzu Publikoetako ikuskaritza medikoko eta Gizarte Segurantzako Institutu Nazionaleko ikuskaritza medikoko osasun-langileek eta Itsasoko Gizarte Institutuan zerbitzuak ematen dituzten Itsas Osasuneko osasun-langileek birus horrek eragindako gaixotasuna hartzen badute, Gizarte Segurantzak zentro sanitarioetan eta soziosanitarioetan zerbitzuak ematen dituzten langile sanitarioei eta soziosanitarioei ematen dien babes bera izango dute.

Horretarako, lan-arriskuen prebentziorako zerbitzuek txostena egin beharko dute, eta, bertan, adierazi beharko dute dena delako langileak SARS-CoV-2 birusaz kutsatutako pazienteei arreta eman diela lanean ari zela.

Lehenengo apartatuan ezarritako epealdian birusa harrapatu duela egiaztatu ondoren, eta bigarren apartatuan aurreikusitako txostena aurkeztu ondoren, lanean kutsatu dela ulertuko da. Gaixotasunaz kutsatzeagatik baja medikoa hartzen den unean lanbide-gertakariak estaltzen dituen izango da prestazio horien erakunde arduraduna.

Laugarren xedapen gehigarria. *Luzamenduei aplikatu beharreko epeak luzatzea.*

Ekonomia Gaietako eta Transformazio Digitaleko Ministerioko titularraren aginduaren bidez luzatu ahal izango dira 7. eta 8.1 artikuluetan ezarritako epeak, baldin eta hala ezartzen bada Europako Banku Agintaritzak COVID-19aren krisiaren ondorioz aplikatutako maileguen itzulketen legegintzako eta legegintzakoak ez diren luzamenduei buruz emandako jarraibideen aldaketaren bidez.

Xedapen Iragankor Bakarra. *Finantzaketen etendurei eta luzamenduei buruzko araubide iragankorra.*

Martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuaren 7. artikuluan, martxoaren 31ko 11/2020 Errege Lege Dekretuaren 21. artikuluan, uztailaren 3ko 25/2020 Errege Lege Dekretuaren 3. artikuluan, uztailaren 7ko 26/2020 Errege Lege Dekretuaren 18. artikuluan edo maiatzaren 26ko 19/2020 Errege Lege Dekretuaren 6. artikulutik 8. artikulura bitartean araututako sektore-akordioetan aurreikusitakoa betez, 2020ko irailaren 30etik errege lege-dekretu hau indarrean jartzen den arte emandako luzamenduek eta etendurek eman ziren unean zituzten baldintzak eta iraupena izaten jarraituko dute.

Xedapen indargabetzaile bakarra. *Arauk indargabetzea.*

Indargabeturik geratzen dira errege lege-dekretu honetan xedatutakoaren aurkakoak diren maila bereko edo beheagoko xedapen guztiak.

Azken xedapenetako lehena. *Eskumen-tituluak.*

I. tituluko I. eta III. kapituluak eta lehen eta bigarren xedapen gehigarriak Konstituzioaren 149.1.17 artikulua babesean eman dira; artikulua horrek Gizarte Segurantzaren oinarriko legeriaren eta araubide ekonomikoaren arloko eskumenak esleitzen dizkio Estatuari.

Lehenengo tituluaren II. kapituluak Espainiako Konstituzioaren 149.1 artikulua 1., 13., 14., 17. eta 18. puntuetan xedatutakoaren babesean eman da; horiek eskumen eskusiboa ematen diote estatuari alor hauetan: espainiar guztien berdintasuna bermatzen duten oinarriko baldintzak arautzeko eskumena, eskubideak baliatzean eta konstituzio-eginbeharrak betetzean; jarduera ekonomikoaren plangintza orokorraren oinarriak eta koordinazioa; ogasun orokorra eta Estatuaren zorra; Gizarte Segurantzaren oinarriko legeria eta araubide ekonomikoak; eta administrazio publikoen araubide juridikoaren eta administrazio-prozedura erkidearen oinarriak.

II. titulua eta hirugarren xedapen gehigarria 149.1 artikulua 6., 8., 11. eta 13. puntuen babesean eman dira. Horiek eskumen eskusiboa ematen diote estatuari alor hauetan: merkataritza-legeria; legeria zibila, alde batera utzi gabe autonomia-erkidegoek zuzenbide zibilak, foralak edo bereziak (halakorik dagoen lekuetan), irauarazi, aldatu eta garatzea; kreditua eta bankuak antolatzeako oinarriak, eta jarduera ekonomikoaren plangintza orokorraren oinarriak eta koordinazioa.

Azken xedapenetako bigarrena. *Arauk emateko gaikuntza.*

Gobernuari ahalmena ematen zaio errege lege-dekretu hau garatzeko eta betearazteko behar diren xedapen guztiak emateko, eta Inklusioko, Gizarte Segurantzako eta

Migrazioetako ministroari, berriz, ministerio-agindu bidez garatzeko Bizitzeko Gutxieneko Diru Sarreraren Gizarte Bitartekarien Erregistroa, maiatzaren 29ko 20/2020 Errege Lege Dekretuaren zortzigarren xedapen iragankorrean arautua.

Azken xedapenetako hirugarrena. *Indarrean jartzea.*

Errege lege-dekretu hau *Estatuko Aldizkari Ofizialean* argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Madriren, 2021eko otsailaren 2an.

FELIPE e.

Gobernuko presidentea,
PEDRO SÁNCHEZ PÉREZ-CASTEJÓN